# VILLAVA ATARRABIA

192 | EKAINA 2026 JUNIO

Atarrabiako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava




06 IBAIA LEHENGORATZEKO LANAK / RESTAURACIÓN FLUVIAL

## Uholdeei aurrea hartzeko

## Actuaciones para prevenir inundaciones

08



## Ubuntu, jai giroko eguna baino askoz ere gehiago

## Ubuntu Azokak, mucho más que una jornada festiva

13



ADI! Izen-ematea ekainean, Kulturak eskainitako ikastaroetan

¡ATENCIÓN! Inscripción en junio en los cursos ofertados por Cultura

HEMEN GAITUZU / SÍGUENOS EN:

**www.villava.es**

**Twitter** (municipal)

**Facebook**
(Berdintasuna-Igualdad / Kirolak-Deportes / Kultura-Cultura)

EGIN ZAITEZ AUAko HARPIDEDUN! / SUSCRÍBETE AL BIM

# OSOKO BILKURAK | PLENOS

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2026ko MARTXOAREN 31

**Aritz Mendaza Riaño zinegotzi karguaz jabetu da.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, Aritz Mendaza Riaño EH Bilduko zinegotzi karguaz jabetu zen Maia Tabar Clementeren ordez, azken horrek uko egin ziolako.

**Esteban Armendáriz 9ko eraikinari eragiten dion xehetasun azterlana (1. poligonoa, 103. lurzatia).** Udalbatzak erabakirik, gaia mahai gainean utzi zen, alkateak eskaturik. Alkateak, izan ere, azaldu zuen lehenik, prentsa-iragarkiaren bidez jarri behar dela jendaurrean, hau da, gaia hasiera batez onetsi zuen urtarrilaren 27ko erabakia.

**Plantilla organikoa onesteko espedientea. Akats materialaren zuzenketa.** Kultur teknikari izateko lanpostuaren (plantilla organikoko A maila) hizkuntza eskakizunean sumatutako akats materiala zuzentzea erabaki zuen osoko bilkurak, dagokion eskakizuna ezartzeko, hots, P C1eko euskara maila jakitea (derrigorrezkoa, C1 maila, hizkuntzen Europako erreferentzia esparru bateratuarekin bat). 14 boto izan ziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN-PSOE eta Contigo Zurekin) eta 3 aurka (UPN eta PP). Horrekin batera, erabaki zen gaia idazkaritzan jartzea jendaurrean, interesdunek espedientea aztertzeko eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

**Kudeaketa-esleipena Kirol Martiketi udalaren Kirol Zerbitzuari laguntza administratiboa emateko.** Udalbatzak aho batez onetsirik, esleipena egin zaio Kirol Martiket 2015 S.L enpresa publikoari, Kirol Zerbitzuak 2026-27 ikasturterako antolatutako jardueren izen-emateen kuotak kudeatze aldera. Ordainketak udal titulartasuneko kontuan sartuko dira. Udalak esanen du zein kontutan.

**Uharteko Udala atxiki egin zaio Berriozar, Antsoain eta Atarrabiako Udalen kontratazio zerrendak kudeatzeko hitzarmenari.** Osoko bilkurak aho batez onetsirik, Uharteko Udala atxiki egin zaio langile deialdiak eta kontratazio zerrendak kudeatzeko udalerri arteko hitzarmenari. Atarrabiako Udalak Antsoain, Uharte eta Berriozarko Udalekin sinatutako hitzarmena da.

**Udala atxiki egin zaio administrazio elektronikorako oinarrizko irtenbideak elkarri emateko hitzarmenari.** Udalbatzak aho batez onetsirik, Atarrabiako Udala atxiki egin zaio Administrazio Digitaleko Estatu Agentziak, Eraldakuntza Digitalerako eta Funtzio Publikoko Ministerioak (Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritza) eta Nafarroako Foru Komunitateak egindako hitzarmenari, administrazio elektronikorako oinarrizko irtenbideak elkarri emateko.

**Contigo Zurekin taldearen mozioa, alokairu kontratuak luzatzeko Errege Lege Dekretua baliozkotzearen alde.** Osoko bilkurak mozioa onetsi zuen, 14 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN-PSOE eta Contigo Zurekin) eta 3 aurka (UPN eta PP). Udalak, beraz, 8/2026 Errege Lege Dekretua babestu du, premiazkoa eta beharrezkoa dela iritzi baitio familiak babesteko, krisi ekonomikoa eta etxe espekulazioa zabaldu diren honetan. Udalari eskatu zaio premia dezala Espainiako Gobernua egoki eta beharrezkoak diren elkarrizketa eta negoziazioak egitera, alokairuaren inguruko neurriei buruzko martxoaren 20ko 8/2026 Errege Lege Dekretua baliozkotzea bermatze aldera, Irango gerrak eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Azkenik, Udalari eskatu zaio premia ditzala Gorte Nagusietako talde guztiak aipatu dekretua boto bidez berretsi dezaten.

**Bizilagunen mozioa, Atarrabia Geroa Bai, PP, Contigo Zurekin eta PSN taldeek bere gain hartua, Vodafoneko telekomunikazio nodoari buruz.** Vodafone España S.A. enpresaren telekomunikazio nodoak arazoak eragin dizkie Fermín Tirapu 20ko bizilagunei eta aldameneko etxebizitzei. Bada, afera horri buruzko mozioa puntuz puntu eztabaidatu zen. Zazpi puntuetarik, udalbatzak sei bota zituen atzera: 1. (ez dadila tramiterako onartu eta eten dadila lizentzia emateko alegazio epea, 271511Z jarduera espedienteari dagokiona; 3. (Vodafoneri exijitu dakiola jarduketa plan bat ezar dezala berehala eta premiaz, zuzenketa neurriak hartzeko, nodoa ia bere osoan berregite aldera); 4. (azter dadila nodoa kokaleku egoki batera eramatearen bideragarritasuna); 5. (ezar dadila protokolo zehatz bat, indarrean den legezko araudi guztia zorrotz betetzeari lotua); 6. (araudiaren lehen urraketa gertatzearekin batera, instalazio guztia egiazki prezintatu dadila); eta 7. (aitortu dadila Vodafone España S.A. enpresa legez kontra ari dela, funtsezko aldaketa egin baitu, ingurumen eragina areagotuta, 2007an emandako lizentzia eguneratu gabe). 5 boto izan ziren alde (Atarrabia Geroa Bai, PP eta Contigo Zurekin), 9 boto aurka (EHBildu) eta 3 abstentzio (UPN eta PSN-PSOE).
Bigarren puntuak hiru alderdien arteko elkarrizketarako mahai gardena eskatzen zuen, hots, Udalaren (erakunde publikoa baita), Vodafoneren (zaratak eragiten dituen instalazioaren jabea) eta jabekideen elkargoaren (arazoa pairatzen baitute) artekoa, eta onetsi egin zen, 15 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PP, PSN-PSOE eta Contigo Zurekin) eta 2 abstentzio (UPN).

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2026KO APIRILAREN 28a

**Gaur egun lankidetzagatik eta konpentsazioagatik indarrean dagoen jarduketa-sistema aldatzeko espedientea, Udal Plan Orokorreko AR-2 banaketa eremuko (errotonda) bi antolamendu unitateetarako: UO-3 (Barcos) eta SGV-2 (Iongraf).** Zinegotzi guztiak bertan zirela, gaur egun lankidetzagatik eta konpentsazioagatik indarrean dagoen jarduketa-sistema aldatzeko





192

EKAINA 2026 JUNIO

ATARRABIAKO UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA

BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL DE VILLAVA

**Argitaratzailea / Edita:** Atarrabiako Udala / Ayuntamiento de Villava
**Erredakzio Kontseilua / Consejo de Redacción:** Mikel Oteiza, Mikel Asiain, Javier López, Richard García, Yadira Martín, Javier Ibáñez

**Argazkia / Fotografía:** Jon Urriza / Anne Arguiñariz / Pablo García / Atarrabiako Udala- Ayuntamiento de Villava
**Itzulpena / Traducción a euskera:** Kike Díez de Ulzurrun
**Egilea / Realiza:** Heda Comunicación

**Inprimatzailea / Imprime:** Idazluma
**Ale kopurua / Tirada:** 4.400
**LG / D.L.:** NA 1223-1996
**Doako banaketa / Difusión gratuita**

MIXTO
Papel procedente de fuentes responsables
Papera ingurumena zainduz sortua
FSC® C021816

# INGURUMENA | MEDIO AMBIENTE

espedientea onetsi zuen osoko bilkurak aho batez,  Udal Plan Orokorreko AR-2 banaketa eremuko (errotonda) UO-3 (Barcos) eta SGV-2 (longraf) antolamendu unitateetarako.

**Udal Plan Orokorreko UO-4 Antolamendu Unitatearen borondatezko birzatiketa proiektua zuzentzeko espedientea.** Udalbatzak aho batez onetsi du Udal Plan Orokorreko UO-4 Antolamendu Unitatearen borondatezko birzatiketa proiektua zuzentzeko espedientea.

**Esteban Armendariz 9ko xehetasun azterlanaren behin betiko onespena.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen behin betiko Esteban Armendariz 9ko xehetasun azterlana.

**2026ko 5. eta 6. aldaketak: kreditu berezia eta kreditu sorkuntza: industrialdeko argiteria publikoa. Hasierako onespena.** Udalbatzak aho batez onetsirik, 40.000 euroko kreditu berezi bat sartu da industrialdeko argiteria publikorako. Dirutza horretako 23.900 euro Trantsizio Energetiko eta Digitaleko, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako Zuzendaritza Nagusiak jarriko ditu. 16.100 euro, berriz, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaren kontura izanen dira.

**2026ko 7. eta 8. aldaketak: kreditu berezia eta kreditu sorkuntza Gaztelekuko biomasa galdararako Hasierako onespena.** Osoko bilkurak aho batez onetsirik, kreditu berezi bat sartu da Gaztelekuko gasolio galdararen ordez biomasa galdara bat jartzeko, 83.000 euroan. 39.100€ Trantsizio Energetiko eta Digitaleko, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako Zuzendaritza Nagusiak jarriko ditu, eta 44.200 euro, berriz, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaren kontura izanen dira.

**Contigo Zurekin taldearen mozioa, aurrekontuak aldatzeko, Apoyo Mutuo elkarteari laguntza berezia emate aldera.** Udalbatzak mozioa onetsi zuen, 5 boto izan baitziren alde (Atarrabia Geroa Bai, PSN-PSOE eta Contigo Zurekin), 3 aurka (UPN eta PP) eta 9 abstentzio (EH Bildu). Beraz, 2.000 euroko dirulaguntza emanen zaio Apoyo Mutuo elkarteari, bere borondatez laguntza ematen ari baita Atarrabian bizi diren migranteen ezohiko erregularizazioan, tramitazioak dakartzan gastuei aurre egin ahal izateko.



## Atarrabiak lorategi koloretsu bat proposatu du Agoitz Loretan Jaialdian

Bigarren urtez jarraian, Atarrabiako Udalak Agoitz Loretan Jaialdian parte hartu du. Ekitaldia maia-tzaren 9an egin da aurten, xedea izanik hiriko landare ondarearen balioa agerian jartzea eta, era berean, landareek eta berdeguneek hirietara ekartzen dituzten onura jasangarri ugariak nabarmentzea.
Atarrabiak eramandako proposamena lorategi koloretsu bat izan da, material birziklatuz (pneumatikoak) osatua, bai eta herriko berdeguneak apainduko duen lore multzoaren lagin bat ere (Gineako baltsamina, begonia hibridoa eta Tagete bariatua).




Udal ordezkaritza batek egin zuen landaketa. Hantxe aritu ziren Mikel Oteitza alkatea, Iban Iturria zerbitzu anitzetako ofiziala eta klima egokitzapeneko prestakuntza tailerreko langileak. Keinu horren bidez, ordezkari politikoek eta udal langileek argi utzi nahi izan zuten jasangarritasunaren eta naturaren aldeko apustua, bai eta herritarrei kalitatezko lorezaintza zerbitzu publikoak eskaintzeko konpromisoa ere. Azken 5 urte honetan, Udalak 1.000.000 bat € baino gehiago inbertitzeaz gain, 600etik gora zuhaitz, 3.000tik gora zuhaixka eta landare bizikor landatu ditu, 58 erakundek eta 3.000 lagunek baino gehiagok parte hartuta.

## Villava propuso un jardín colorido en el Festival Aoiz en flor

Por segundo año consecutivo, el Ayuntamiento de Villava participó en el Festival Aoiz en flor, un evento celebrado en esta edición el 9 de mayo que busca poner en valor el patrimonio vegetal urbano y destacar los múltiples beneficios sostenibles que aportan las plantas y los espacios verdes a las ciudades.
La propuesta de Villava fue un colorido jardín integrado por material reciclado (neumáticos) y una muestra del conjunto de flores (Alegría guineana, Begonia híbrida y Tagete variado) que van a decorar los espacios verdes de la localidad.
La plantación corrió a cargo de una representación municipal compuesta por el alcalde Mikel Oteiza y el oficial de Servicios Múltiples Iban Iturria, y de personal del Taller formativo de adaptación climática.  Con este gesto, tanto la representación política como el personal municipal quisieron dejar clara su apuesta por la sostenibilidad y la naturaleza, y su compromiso por ofrecer a la ciudadanía unos servicios públicos de jardinería de calidad. En los últimos 5 años, el Ayuntamiento ha invertido más de 1.000.000 € y ha plantado más de 600 árboles, 3.000 arbustos y vivaces, con la participación de 58 entidades y más de 3.000 personas.

# OROKORRA | GENERAL

## PLENO ORDINARIO

### 31 DE MARZO 2026

**Toma de posesión de Aritz Mendaza Riaño de su cargo de concejal.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal, Aritz Mendaza Riaño tomó posesión de su cargo como concejal de EH Bildu en sustitución, por renuncia, de Maia Tabar Clemente.

**Aprobación definitiva de Estudio de Detalle para la parcela 103 del polígono 1, afectando a la edificación sita en C/ Esteban Armendáriz 9.** La corporación municipal decidió dejar el asunto encima de la mesa, a petición del alcalde, después de que éste informara que está pendiente el trámite de información pública a través del anuncio de prensa del acuerdo de aprobación inicial alcanzado el 27 de enero.

**Expediente de aprobación de plantilla orgánica. Subsanación de error material.** El Pleno aprobó por 14 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN-PSOE y Contigo Zurekin y 3 en contra de UPN y PP subsanar el error material advertido en el perfil lingüístico del puesto de Técnico/a de cultura, nivel A de plantilla orgánica, y establecer su perfil correspondiente que es el de conocimiento de euskera P C1 (preceptivo en grado C1 conforme al marco común europeo de referencia para las lenguas); y exponer en Secretaría durante 15 días a fin de que las personas interesada puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes).

**Encomienda de gestión a Kirol Martiket de apoyo administrativo al servicio municipal de deportes.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad encomendar a la empresa pública Kirol Martiket 2015 S.L la gestión material de la recaudación de las cuotas de inscripción de las actividades organizadas por el Servicio de Deportes para el curso 2026-27, ingresándose los pagos en la cuenta de titularidad del Ayuntamiento que se designe.

**Adhesión del Ayuntamiento de Huarte al convenio de gestión de listas de contratación de los ayuntamientos de Berriozar, Ansoáin y Villava.** El Pleno acordó por unanimidad la adhesión del Ayuntamiento de Uharte al convenio intermunicipal de gestión en materia de convocatorias de personal y gestión de listas de contratación que el Ayuntamiento de Villava tiene suscrito con los Ayuntamientos de Ansoain, Uharte y Berriozar.

**Adhesión al nuevo Convenio de Prestación Mutua de Soluciones Básicas de Administración Electrónica.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad adherir al Ayuntamiento de Villava al Convenio entre la Agencia Estatal de Administración Digital, el Ministerio para la Transformación Digital y de la Función Pública (Secretaría de Estado de Función Pública) y la Comunidad Foral de Navarra para la prestación mutua de soluciones básicas de administración digital.

**Moción presentada por Contigo Zurekin en apoyo de la convalidación del Real Decreto Ley de medidas en el alquiler para la prórroga de contratos.** El Pleno aprobó por 14 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN y Contigo Zurekin y 3 en contra de UPN y PP apoyar explícitamente el Real Decreto-ley 8/2026 y reconocer su carácter urgente y necesario para proteger a los hogares en un contexto de crisis económica y especulación inmobiliaria; instar al Ayuntamiento para que, a su vez, inste al Gobierno de España a que establezca las conversaciones y negociaciones pertinentes y necesarias que garanticen la convalidación del Real Decreto Ley 8/2026 de 20 de marzo, de medidas en el alquiler en respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Irán: e instar al Ayuntamiento para que, a su vez, inste a todos los grupos parlamentarios de las Cortes Generales a que ratifiquen con su voto el citado RDL.

**Moción vecinal asumida por Atarrabia Geroa Bai; PP, Contigo Zurekin y PSN sobre el nodo de telecomunicaciones de Vodafone.** La moción para tratar la problemática generada por el nodo de telecomunicaciones de la empresa Vodafone España S.A. al vecindario de Fermín Tirapu 20 y sus viviendas colindantes fue debatida punto por punto. Los puntos 1 (que se inadmita a trámite y se detenga el plazo de alegaciones de la concesión de licencia actualmente abierto al expediente de actividad 271511Z), 3 (que se exija a Vodafone el establecimiento de un plan de actuación inmediato y urgente, que pasa por una actuación integral de medidas correctoras que debería implicar prácticamente rehacer el nodo), 4 (que se le solicite el estudio de viabilidad del traslado del nodo a una ubicación adecuada al desempeño de la actividad), 5 (que se establezca un protocolo de ensayos detallado para la verificación, condicionado al cumplimiento estricto de toda la normativa legal existente), 6 (que, ante el primer incumplimiento detectado, se proceda al precinto total efectivo de toda la instalación) y 7 (que se reconozca que la empresa Vodafone España S.A. está operando en la actualidad de forma ilegal, puesto que ha efectuado una modificación sustancial incrementando su impacto ambiental sin actualizar la licencia concedida en 2007) fueron rechazados por 5 votos a favor de Atarrabia Geroa Bai, PP y Contigo Zurekin, 9 votos en contra de EH Bildu y 3 abstenciones de UPN y PSN-PSOE.
El segundo punto, por el que se solicitaba una mesa de diálogo transparente entre las tres partes: Ayuntamiento (como institución pública), Vodafone (como propiedad de la instalación causante de los ruidos) y la comunidad de propietarios (como parte afectada), fue aprobado por 15 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PP, PSN-PSOE y Contigo Zurekin y 2 abstenciones de UPN.

## PLENO ORDINARIO

### 28 DE ABRIL DE 2026

**Expediente de modificación del sistema de actuación actualmente vigente por cooperación y compensación para las unidades de ordenación UO-3 (Barcos) y SGV-2 (longraf) del área de reparto AR-2 (rotonda) del Plan General Municipal.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal, el Pleno aprobó por unanimidad el expediente de modificación del sistema de actuación actualmente vigente por cooperación y compensación para las unidades de ordenación UO-3 (Barcos) y SGV-2 (longraf) del área de reparto AR-2 (rotonda) del Plan General Municipal.

**Expediente de subsanación del proyecto de reparcelación voluntaria de la Unidad de Ordenación UO-4 del Plan General Municipal.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad el expediente de subsanación del proyecto de reparcelación voluntaria de la Unidad de Ordenación UO-4 del Plan General Municipal.

**Aprobación definitiva de estudio de detalle de Esteban Armendáriz 9.** El Pleno acordó por unanimidad la aprobación definitiva de estudio de detalle de Esteban Armendáriz 9.

**Modificación 5 y 6/2026: crédito extraordinario y generación de crédito: alumbrado público del polígono. Aprobación inicial.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad incluir un crédito extraordinario para el alumbrado público del polígono por un importe de 40.000 euros, de los cuales 23.900 euros corren a cargo de la Dirección General de Transición Energética y Digital, I+D+i empresarial y Emprendimiento y 16.100 euros, a cargo del Remanente de Tesorería para gastos generales.

**Modificación 7 y 8/2026: crédito extraordinario y generación de crédito para la caldera de biomasa del Gazteleku. Aprobación inicial.** El Pleno aprobó por unanimidad incluir un crédito extraordinario para sustituir la caldera de gasóleo por una caldera de biomasa en el Gazteleku por un importe de 83.000 euros, de los cuales 39.100 euros corren a cargo de la Dirección General de Transición Energética y Digital, I+D+i empresarial y Emprendimiento y 44.200 euros, a cargo del Remanente de Tesorería para gastos generales.

**Moción de Contigo Zurekin para solicitar una modificación presupuestaria para conceder una ayuda extraordinaria a la asociación Apoyo Mutuo.** La Corporación municipal aprobó por 5 votos a favor de Atarrabia Geroa Bai, PSN-PSOE y Contigo Zurekin, 3 en contra de UPN y PP y 9 abstenciones de EH Bildu conceder una ayuda extraordinaria de 2.000 euros a la asociación Apoyo Mutuo, que está ayudando de manera voluntaria en la regularización extraordinaria de personas migrantes que residen en Villava, para que pueda hacer frente a los gastos que supone esta tramitación.

# Patinete elektrikoei buruzko kanpaina

Atarrabiako udaltzaingoak, Iruñerriko gainerako udalerriekin koordinazioan, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak kontrolatzeko informazio kanpaina berezia egin du maiatzean; batez ere, patinete elektrikoei begira. Helburu nagusia izan da mugikortasun seguru, arduratsu eta errespetuzkoa sustatzea, bai horrelako ibilgailuak erabiltzen dituztenendako, bai eta gainerako herritarrendako ere. Hasierako egunetan, nagusiki informazioa eman zen eta, ondoren, isunak jartzen hasi ziren, indarrean den araudia urratzeagatik. Udaltzaingoak, guztira, 138 esku-hartze egin zituen; haietariko 4tan salaketa jarri zen, eta 2tan, patinete elektrikoa depositura eraman zen.

# Campaña sobre patinetes eléctricos

La Policía Municipal de Villava, en coordinación con el resto de municipios de la Comarca de Pamplona, ha puesto en marcha durante el mes de mayo una campaña informativa y de control sobre los Vehículos de Movilidad Personal (VMP), especialmente patinetes eléctricos, con el fin de favorecer una movilidad segura, responsable y respetuosa, tanto para las personas usuarias de VMP como para el resto de la ciudadanía. Durante los primeros días, la campaña tuvo un carácter principalmente informativo y, posteriormente, se procedió a sancionar los incumplimientos detectados. En total, la Policía realizó 138 intervenciones, de las cuales 4 terminaron en denuncia y 2 con la retirada del patinete eléctrico al depósito.

## BETEBEHARREKOAK

- **Ibilgailuaren nahitaezko erregistroa.** Patinete elektriko guztiek Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) erregistroan inskribatuta egon behar dute. Izapide hori nahitaezkoa da legez zirkulatu ahal izateko.
- **Derrigorrezko erantzukizun zibileko asegurua.** Nahitaezkoa da erantzukizun zibileko aseguru bat izatea hirugarrenei eragiten ahal zaizkien kalte pertsonalak eta materialak estaltzeko. Asegururik gabe ibiltzeak zigor ekonomiko handiak ekar ditzake, baita ibilgailua ibilgetzea ere..
- **Ibilgailuaren identifikazioa.** Behin erregistratu ondoren, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak identifikazio etiketa bat eraman beharko du agerian, matrikula bat bailitzan, identifikatzeko aukera emanen duena.

## OBLIGACIONES

- **Registro obligatorio del vehículo.** Todos los patinetes eléctricos deben estar inscritos en el registro de la Dirección General de Tráfico (DGT). Este trámite es imprescindible para poder circular legalmente.
- **Seguro de responsabilidad civil obligatorio.** Es obligatorio disponer de un seguro de responsabilidad civil que cubra los daños personales y materiales que se puedan causar a terceros. Circular sin seguro puede conllevar sanciones económicas importantes e incluso la inmovilización del vehículo.
- **Identificación del vehículo.** Una vez registrado, el VMP deberá portar una **etiqueta** identificativa visible, equivalente a una matrícula, que permita su identificación.

## OINARRIZKO ZIRKULAZIO ARAUAK

- Debekatua dago espaloi, plaza eta oinezkoendako eremuetan ibiltzea.
- Galtzadetan, bidegorrietan eta bide baimendunetan baizik ezin da ibili.
- Gehienez 25 km-ko abiaduran orduko.
- Debekatua dago mugikorra eta aurikularrak erabiltzea, gidatzean.
- Alkohol tasak errespetatu behar dira (0,25 mg/l adin nagusikoetan eta 0,00 adingabeetan).

## NORMAS BASICAS DE CIRCULACIÓN

- Prohibido circular por aceras, plazas y zonas peatonales.
- Solo se puede circular por calzada, carriles bici o vías autorizadas.
- La velocidad está limitada a 25 km/h.
- Prohibido el uso del móvil y auriculares durante la conducción.
- Deben respetarse las tasas de alcohol (0,25 mg/l en mayores y 0,00 en menores).

# Kirol Zerbitzuak bere konpromisoak bete ditu

Kirol instalazioen mantentze-lanei dagokionez, Kirol Zerbitzuak 8 hobekuntza egin ditu, guztiak ere paneletan ikusgai jarriak, eta konpromisoa zen urtero 5 hobekuntza egitea. Bestalde, inkestatuek bana beste 7,74ko balorazioa eman diote kirol instalazioen garbitasunari (konpromisoa zen 7tik gorakoa izan behar zuela). Era berean, kasuen % 92,19n, gauzak 7 egun baino lehen konpondu dira, eta helburua % 90ekoa zen.

Erabiltzaileak artatzearen atalean, inkestatuen batez besteko balorazioa 7,26 izan da kirol instalazioei dagokienez, eta 8,11koa, kudeaketan erakutsitako adeitasun, azkartasun eta eraginkortasunari dagokionez. Bi kasuetan, konpromisoak bete dira, 7tik eta 8tik gorakoak baitziren, hurrenez hurren. Azkenik, 3 desfibrilatzaile erdi automatiko (DESA) izateko helburua bete da eta, bete ere, sorosleek eta zaindariek lehen sorospenei buruzko birziklapen ikastaroa urtero egiteko helburua.

# El Servicio de Deportes cumple sus compromisos

En cuanto al mantenimiento de sus instalaciones deportivas, el Servicio de Deportes ha llevado a cabo 8 mejoras, que han sido expuestas en paneles visibles, y el compromiso adquirido era de 5 mejoras anuales; y la valoración media de las personas encuestadas respecto a la limpieza de las instalaciones deportivas ha sido de un 7,74 (el compromiso adquirido establecía que tenía que ser superior a 7). Asimismo, el porcentaje de acciones correctivas de mantenimiento antes de los 7 días ha alcanzado el 92,19%, acorde al 90% establecido como objetivo.

Respecto a la atención de las personas usuarias, la valoración media de las personas encuestadas respecto a las instalaciones deportivas ha obtenido un 7,26 y la valoración media respecto a la amabilidad, rapidez y eficacia en la atención se ha situado en 8,11. En ambos casos, se han cumplido los compromisos fijados en valores superiores a 7 y 8 respectivamente.

Por último, se ha cumplido el objetivo de disponer de 3 desfibriladores semiautomáticos (DESA) en óptimas condiciones de uso y de que el 100% de los y las socorristas y vigilantes realicen anualmente un curso de reciclaje de primeros auxilios.

# OROKORRA | GENERAL

## UHOLDEEI AURREA HARTZEKO INGURUMEN NEURRIAK

Udalak hainbat neurri hartu ditu Ultzama ibaia lehengoratzeko eta haren ibilgua hobetzeko, uholde arriskurik ez izateko. Bi dirulaguntza jaso dira lanak egiteko: batetik, 5.305.342,83 euroko laguntza Energia Trantsizioko eta Demografia Erronkako ministerioak emana, eta bestetik, 2.950.000 eurokoa, Lurralde Kohesioko departamentuak emana.

El Ayuntamiento está inmerso en las actuaciones de restauración y mejora hidráulica del río Ultzama para evitar el riesgo de inundaciones. Para acometer estos trabajos, dispone de una subvención de 5.305.342,83 euros del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico y de 2.950.000 euros del Departamento de Cohesión Territorial.

## IONGRAFeko uralitazko estalkia eraisteko lanak

Udala hasi da gauzatzen Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuak ezarritako deskontaminazio neurriak IONGRAFeko nabeak eraisteko. Uralitazko estalkiak amiantoa dauka, eta apirilean hasi ziren kentzen, egokiak diren segurtasun neurriak hartuta. Izan ere, xaflak kentzeko ardura duten langileek lan-jantzi bereziak eta babesgarriak daramatzate, eta gehienez, lau orduz daude kontaktuan amiantoarekin lanaldiko. Estalkia kentzen duten bitartean, inork ez du barnean egon behar. Langileok beren lana bukatzean, orduantxe hasten dira lanean zolata eraisten ari diren Erri Berri enpresako langileak. Dagoeneko, ibai ondoko nabeko estalkia kendu da eta Errondoa karrikako nabean ari dira lanean. Aurreikuspenen arabera, estalki guztia ekainaren lehen hamabostaldian kenduko dute. Behin estalkia kendutakoan, nabearen hormigoizko egitura eraisten jarraituko dute. Uralitazko estalkia kentzeko lanak epe barnean egiten badira, IONGRAFeko nabeak irail bukaeran edo urri erdialdean egonen dira erabat eraitsiak.

## Desmantelamiento de la cubierta de uralita de IONGRAF





El Ayuntamiento ha iniciado la ejecución de las medidas ambientales de descontaminación impuestas por el Departamento de Medio ambiente del Gobierno de Navarra para el derribo de las naves de IONGRAF. El desmontaje de la cubierta de uralita que contiene amianto comenzó en abril y se está llevando a cabo con las medidas de seguridad pertinentes. El personal encargado de retirar las placas va ataviado con buzos y elementos de protección y permanece un máximo de cuatro horas en contacto con el amianto. Mientras trabajan en la retirada de la cubierta, no puede haber nadie en el interior, por lo que los trabajadores de Erri Berri que están realizando la demolición de la solera comienzan su jornada laboral una vez que el equipo de desmontaje concluye sus labores. Ya se ha retirado la parte de la nave próxima al río y han comenzado los trabajos de la parte de la nave situada en la calle Errondoa. Está previsto que la retirada de la cubierta concluya la primera quincena de junio. Una vez que finalice el desmontaje de la cubierta, continuará la demolición de la estructura de hormigón de la nave. Si la retirada de la cubierta de uralita sigue los plazos establecidos, el derribo de las naves de IONGRAF concluirá previsiblemente a finales de septiembre o mediados de octubre.

### Ibai-parke berrirako proposamena

### Propuesta de nuevo parque fluvial




Behin lurzoru industriala uholde-eremu bihurtutakoan, hurrengo urratsa izanen da eremu hori Iruñerriko ibai-parkean txertatzea. Udala Iruñerriko Mankomunitatearekin batera ari da lanean Ultzama ibaiaren eskuineko ertza San Andres parean moldatzeko. Mankomunitateak egindako proposamenaren arabera, hainbat ezponda eginen dira. Horrela, 12 metroko ibaiertz eremu bat egokituko da, 30 metroko alubioi-plataforma bat, herritarren erabilerarako, eta kotarik gorenean, 6 metroko bat, Errondoa karrikan. Dena den, ibai-parkea moldatu aurretik, San Andres zubi berria eginen da Ultzama ibaiaren gainean.

Una vez reconvertido el suelo industrial en zona inundable, el siguiente paso será incorporar el espacio al parque fluvial de la Comarca. El Ayuntamiento está trabajando conjuntamente con la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona para acondicionar la margen derecha del río Ultzama a su paso por San Andrés. La solución propuesta por la MCP es una propuesta de taludes progresivos compuesta por una zona de ribera del de 12 metros, una plataforma aluvial de 30 m para disfrute de la ciudadanía y, en la cota más alta, la calle Errondoa (6 m). El parque fluvial se ejecutará una vez que se construya el nuevo puente de San Andrés sobre el río Ulzama.



# San Andres zubi berria 2027 eta 2028 artean eraikiko da

# La construcción del nuevo puente de San Andrés se ejecutará entre 2027 y 2028

Udalak eta Nafarroako Gobernuak akordioa sinatu dute San Andres zubi berria eraikitzeko finantzazioa bermatze aldera. Hitzarmenaren arabera, Lurralde Kohesioko Departamentuak 2.950.000 euroko dirulaguntza emanen du egungo zubia eraisteko eta berria eraikitzeko, bai eta ibaiertzean babes-horma bat egiteko eta alubioi-metek eragindako irlak ezabatzeko ere.

Lan horiek guztiak beharrezkoak dira Ultzama ibaiaren uhaldiek eragiten dituzten uholdeak arintzeko eta inguru horretako segurtasuna hobetzeko. Ekologia Trantsizioko eta Demografia Errondako Ministerioak ere dirulaguntza eman du. Laguntza hori, ordea, ez da aski proiektu osoa burutzeko; beraz, Nafarroako Gobernuaren ekarpenari esker, proiektuaren gauzapena ziurtatua dago.

Lurralde Kohesiorako Departamentua arduratu da proiektua lizitaziora atera, adjudikatu eta hasiera batez eta behin betiko onesteaz. Aurreikuspenen arabera, San Andres zubi berria 2027an egiten hasi eta 2028an bukatua egonen da.

El Ayuntamiento y el Gobierno de Navarra han firmado un acuerdo para garantizar la financiación de la construcción del nuevo puente San Andrés. El convenio establece que el Departamento de Cohesión Territorial subvencionará con 2.950.000 euros el derribo del actual puente y sustitución por uno nuevo, así como la construcción de un muro de protección de la orilla y la eliminación de islas de depósitos aluviales.

Esta actuación, necesaria para paliar los desbordamientos provocados por las crecidas del río Ultzama y mejorar la seguridad de la zona, cuenta con una subvención del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico. Sin embargo, esta ayuda económica resulta insuficiente para llevar a cabo el proyecto, por lo que la aportación del Gobierno de Navarra garantiza la actuación.

Está previsto que el Departamento de Cohesión Territorial, encargado de la licitación, adjudicación, aprobación provisional y definitiva del proyecto, ejecute la construcción del nuevo puente San Andrés en 2027 y pueda concluirlo totalmente en 2028.







# Mugaz gaindiko pilota topaketak Atarrabian

# Cita en Villava de los Encuentros transfronterizos de pelota

**Pilotasoro II** egitasmoaren hirugarren topaketa egin zen Atarrabia pilotalekuan, joan den maiatzaren 23an, hau da, Labrit Ondare, EHPK (Euskal Pilota Konfederazioa) eta Ikas Pilota erakundeek antolatua eta Euroeskualdeak "Euroeskualdeko Herritartasuna" proiektuaren baitan finantzatua, euskal pilota, euskal kultura eta euskara bultzatzeko, eta herrien arteko topaketak egiteko. Bigarren edizio honetan, Atarrabia (Nafarroa), Asteasu (Gipuzkoa) eta Itsasu (Lapurdi) herriek parte hartu dute.

Goiz osoan, Atarrabiako pilotalekuan, pilota eskolen erakustaldiak egin eta eskupilota eta pala partiduak jokatu ziren, hiru herrietako gizon-emakume pilotarien eskutik, bai eta kultur jarduera batzuk ere (bertsolariak, musika eta otamena).

Beste bi jardunaldiak maiatzaren 2an (Asteasu) eta maiatzaren 16an (Itsasu) egin ziren.

El frontón Atarrabia acogió el pasado sábado 23 de mayo el tercer encuentro del proyecto **Pilotasoro II**, un programa organizado por Labrit Ondare, EHPK (Confederación Vasca de Pelota) e Ikas Pilota y financiado por la Eurorregión a través de la convocatoria de proyectos "Ciudadanía Eurorregional", que tiene como objetivo impulsar la pelota vasca, la cultura y el euskera, así como el encuentro vecinal entre los pueblos. En esta edición los ayuntamientos participantes han sido Villava (Navarra), Asteasu (Gipuzkoa) e Itsasu (Lapurdi).

Durante toda la mañana el frontón de Villava acogió exhibiciones de las escuelas de pelota, partidos de pelota y pala protagonizados por hombres y mujeres de las tres localidades, y varias actividades culturales (bertsolaris, música y lunch).

Las otras dos jornadas se celebraron el sábado 2 de mayo (Asteasu) y el sábado16 de mayo (Itsasu).

## IV. Ubuntu Azokak, jai giroko eguna baino askoz ere gehiago

Ubuntu Azoka joan den maiatzaren 10ean egin zen, ekitaldi asko burututa, jende aunitzek parte hartuta, eta bestelako jarduerak ere eginda, adinekoen bizitza ardatz hartuta, horixe izan baita aurtengo gaia. Izan ere, laugarren azokak berrikuntza ekarri du, eta orain, azoka, urtero, herritarren intereseko gai bati eskainiko zaio.

“Banaiz bagarelako” goiburu hartuta, era askotako jarduerak antolatu ziren Ribed parkearen inguruan eta Udaletxe plazan, hilaren 10ean, igandearekin, hots, Ecuaboley, artisautza-papera egiteko tailer bat, 0-3 urtekoendako gunea, martxa nordikoa, mugikortasun inklusiboa esperimentatzeko paseoak, 5-11 urte arteko haurrendako ginkana; dantza erakustaldia, San Andres adinekoen elkartearen eskutik, 0 km-ko elikagai dastatzeak eta, arratsaldean, berriz, "Al menos no es navidad" antzezlana Kultur Etxean, zahar etxeetako bakardadeaz aritzeko.
Herritar Azokaren ikuspegi berriarekin batera, udal zerbitzuak elkarlanean aritzen dira, guztiek ere beren jarduerak proposa ditzaten egitaraua osatzeko orduan, bakoitzak bere ikuspegiarekin bat. Aurtengoan, zahartze duinarekin lotuak, hain zuzen ere.

Gainera, bestelako ekimenik ere izan da Ubuntu Azokaren inguruan. Adibidez, Amalur Haur Eskolako ikasleek eta Jubiloteka erabiltzen dutenek parterreak landatu zituzten; segurtasunez zahartzeari buruzko solasaldia, Udaltzaingoak Jubilotekan emana (prebentzioa iruzurren aurrean, eta etxe eta kaleko lapurreten aurrean). Azkenik, herriko liburutegian, zahartze aktiboarekin lotutako liburu txoko bat paratu zen herriko liburutegian, liburuak bertan irakurtzeko edo mailegutan eramateko. Hasiera batez, aldi baterako jartzea pentsatu zen, baina jendeak harrera on-ona eman diola ikusirik, txokoa mantentzeko aukera aztertzen ari dira edo, bestela, halako gordetegi txiki bat sortuko da, liburu guztiak bilduta eta eguneratzen joanen dena, QR bidez sartzeko modukoa.

*Ubuntu, banaiz, bagarelako*





## IV. Ubuntu Azokak, mucho más que una jornada festiva

La Feria Ubuntu celebró el 10 de mayo una jornada festiva muy participativa, pero la programación se extendió más allá con más actividades en torno a la longevidad, tema que articuló la edición de este año. Esta cuarta feria ha sido la primera de un nuevo ciclo en el que cada año se dedicará a un tema de interés ciudadano.

Bajo el lema "Soy porque somos", se programaron actividades muy diversas. En el entorno del Parque Ribed y plaza consistorial, el domingo 10 por la mañana hubo Ecuaboley, un taller de elaboración de papel artesanal, un espacio dedicado al tramo 0-3 años, marcha nórdica, paseos para experimentar personalmente la movilidad inclusiva, Gymkana para niños y niñas de 5 a 11 años; exhibición de baile a cargo de la Asociación de Personas Mayores San Andrés, degustación de productos km 0 y, ya por la tarde, una obra de teatro en la Casa de Cultura titulada "Al menos no es navidad" que abordaba la soledad en las residencias.
Este nuevo enfoque de la feria ciudadana plantea la colaboración del conjunto de servicios municipales, de tal manera que todos participen proponiendo actividades para el programa desde su óptica particular, en el caso de esta edición, relacionadas con el envejecimiento digno.
Otras iniciativas enmarcadas en Ubuntu fueron la plantación de parterres por parte de alumnado de la Escuela Infantil Amalur y personas usuarias de la Jubiloteka; una charla sobre envejecer con seguridad impartida por Policía Municipal en la Jubiloteka (prevención ante estafas y robos en el domicilio y en la calle); y la instalación en la Biblioteca de un txoko de libros relacionados con el envejecimiento activo para lectura y préstamo. En un principio, se pensó como actividad temporal, pero ha tenido muy buen recibimiento y se baraja la posibilidad de mantenerlo o de crear un pequeño repositorio con todos los títulos que se irá actualizando y al que se podrá acceder desde un QR.

*Ubuntu, soy porque somos*


**Anúnciate en el Boletín de información municipal de Villava**

✆ 948 13 67 66
4.400 ejemplares / ale
PERIODICIDAD/MAIZTASUNA: bimestral / bi hilabetekoa

**Zure iragarkia Atarrabiako udal informazio aldizkarian**

















# Bizi uda euskaraz!

# ¡Vive el verano en euskera!

**Hizkuntza bat erabiltzea da huraxe indartzeko modurik onena. Uda garai egokia izan ohi da hori egiteko. Horrenbestez, Udaleko Euskara Zerbitzuak proposamen eta gomendio batzuk eman ditu bai haurrentzat, bai gazte eta helduentzat.**

**Usar un idioma es la mejor forma de fortalecerlo. El verano es una buena época para poner en práctica este principio. El Servicio de Euskera municipal aporta algunas propuestas y recomendaciones, tanto para niños y niñas como para personas jóvenes y adultas.**

INFO +
www.elaide.eus/es

INFO +
www.eranafarroa.eus/es/

**Haurrei** dagokienez, ez dute soilik euskara ikasi eta erabili behar eskola ordutegian, hizkuntza eguneroko bizitzan eta eginkizunetan sartu behar baita.
Udan, ordea, euskara erabiltzeko duten esparrua (eskola) desagertzen da; beraz, udan ere harremanak euskaraz izate aldera, Euskara Zerbitzuak gogora ekarri du sorta zabala badagoela hiri kanpaldietan, udako ludoteketan eta kanpaldi irekietan.
Atarrabian, aurten ere aukera sorta ederra dago haurrek udan euskara erabiltzen jarraitzeko. Batetik, kultur jarduerak daude (adibidez, Zirika Zirkus taldeak abuztuaren 25ean, astearteakin, ekarriko duen "Sinfonika Afonika" lana, antzerkia eta zirkua uztartuta, 20:00etan, Udaletxe plazan), udako hiri kanpaldiak, hamabost egunekoak, edota igerilekuko liburutegia, guztiak ere udal zerbitzuek antolatuak edo antolatzen lagunduak.
Udalak, bestalde, aurten ere astebete inguruko iraupena duten udalekuetarako laguntza-deialdia egin du.
**Gazteendako**, berriz, Gaztelekuk eta Euskara Zerbitzuak euskarazko jarduerak eskaini dituzte udarako. Bi ateraldi antolatu dira: abuztuaren 7an, ostiralarekin, Zugarramurdiko leizeetara + Sorginen Museoa + Senpereko Aquazone ur parkea; eta abuztuaren 21ean, ostirala, Hondarribiko hondartzara + kayak + padel surf + snorkel Fraideen hondartzan.
Eta ez da ahaztu behar beti izan dezakegula euskara eskura, oporretan noranahi goazelarik ere, hau da, hondartza, hiria, mendia edo igerilekua edozein izanik ere: liburuak, aldizkariak, komikia, disko on bat.
Euskara ikasten ari diren **helduek** ere hamaika proposamen dituzte ikasteko eta mintzatzeko. Batetik, udako ikastaroak eginez eta, bestetik, euskaraz antolatzen diren kultur eta aisia proposamen ugarietan parte hartuz. Adibidez, abuztuaren 30ean, igandearekin, "Gaua" filma emanen da euskaraz Bakearen parkean, gaueko 10etan hasita, Paul Urkijok zuzendua. 16 urtetik gorakoentzat da.

En el caso de los **niños y niñas**, el aprendizaje y uso del euskera no debe limitarse al horario del colegio, sino que hay que incorporarlo a las vivencias y rutinas diarias.
Para que esto sea posible en verano, cuando desaparece el ámbito en el que se relacionan en euskera, la escuela, el Servicio de Euskera recuerda que hay una amplia oferta de campamentos urbanos, ludotecas de verano y campamentos abiertos.
En Villava, también este año se dan opciones para que los niños y niñas sigan utilizando el euskera en verano. Por una parte están las actividades culturales (por ejemplo la propuesta de teatro-circo "Sinfonika afonika", de Zirika Zirkus el martes 25 de agosto a 20:00 en la plaza del Ayuntamiento), los campamentos urbanos de verano de duración quincenal o la biblioteca en la piscina, todas ellas actividades organizadas desde o con apoyos de los diferentes servicios municipales.
Por otra parte, también este año el Ayuntamiento convoca ayudas para campamentos de verano de alrededor de una semana de duración.
Para las **personas jóvenes**, el Gazteleku, junto al Servicio de Euskera, oferta actividades en euskera para el verano. Se han organizado dos salidas: el viernes 7 de agosto a la Cueva de Zugarramurdi+ Museo de las Brujas+Parque Acuático Aquazone Senpere; y el viernes 21 de agosto a la playa de Hondarribia + kayak + padel surf+ snorkel en la cala de Los Frailes.
Y no hay que olvidar que siempre se puede tener a mano el euskera cualquiera que sea el destino de vacaciones, playa, ciudad, monte o la piscina. Ya sea en formato libro, revista, cómic o un buen disco.
Las **personas adultas** que están aprendiendo esta lengua también tienen infinidad de propuestas de aprendizaje y práctica del idioma. Por una parte, acudiendo a cursos de verano, y, por otra, las diversas propuestas culturales y de ocio que se programan en euskera. Por ejemplo, el domingo 30 de agosto a las 22:00 se proyecta en euskera en el parque de la Paz la película "Gaua", de Paul Urkijo para público mayor de 16 años.

## BARNETEGIAK: BEHAR-BEHARREZKOAK UDAKO PLANETARAKO

Udako barnetegiak oso bide emankorra dira euskara ikasteko bideari bultzada emateko.

**AEK**
Euskara ikasteko barnetegiak, mailaka antolatuak, mailak egiaztatzeko azterketak prestatzeko barnetegiak, familian egoteko barnetegiak, barnetegi ibiltaria eta xibebera barnetegia. Barnetegiak Foruan, Arantzan, Adunan, Urepelen eta Mendikotan egiten dira, modalitatea zein den.

**Maizpide**
12 eguneko uda ikastaroak uztail, abuztu eta irailean. 8 eskola-ordu egunean. Maila guztiak.

**Zornotza**
6 ikastaro, 12 eguneko uda ikastaroak uztail, abuztu eta irailean. 8 eskola-egun egunean. Bi erregimen eskaintzen ditu: mantenu osoa (eskolak eta egonaldia) edo mantenu erdia (eskolak, kanpo jarduerak, baina lotara etxera joanda).

## "BARNETEGIS": INDISPENSABLES EN LOS PLANES DE VERANO

Los barnetegis de verano son un camino muy fructífero para dar un impulso al aprendizaje del euskera.

**AEK**
barnetegis de euskaldunización organizados por niveles, los de acreditación de conocimientos y preparación de exámenes, los barnetegis de familia, el barnetegi itinerante y el barnetegi de Xiberera. Los barnetegis se realizarán en Forua, Arantza, Aduna, Urepel y Mendikota, dependiendo de la modalidad.

**Maizpide**
Cursos de verano de 12 días en julio, agosto y septiembre. 8 horas lectivas al día. Todos los niveles.

**Zornotza**
6 cursos de verano de 12 días en julio, agosto y septiembre. 8 horas lectivas al día. Ofrece dos regímenes: pensión completa (clases y estancia) o media pensión (clases, participar en actividades externas, yendo a dormir a casa).







## EUSFERA, giro euskaldunagoa familiendako

Maiatzaren 7tik 17ra, Eusfera izeneko ekimen berria gauzatu da hainbat herritan, 12 urtera arteko seme-alabendako giro euskaldunagoa nahi duten familiei zuzendua, euskaraz gozatze aldera, alde batera utzita etxe barneko hizkuntza zein den. Atarrabian, Karrikaluzek familiendako ginkana bat antolatu zuen (maiatzak 17), eta Paz de Ziganda ikastolak ikasleendako jarduera bat.

## EUSFERA, más euskera en un ambiente familiar

Entre el 7 y el 17 de mayo se desarrolló en diversas localidades una nueva experiencia familiar denominada Eusfera dirigida a quienes buscan entornos euskaldunes para sus hijos e hijas de hasta 12 años, sin importar si la familia habla la lengua. En Villava, Karrikaluze organizó una gynkana familiar (17 de mayo) y la ikastola Paz de Ziganda una actividad con su alumnado.

## Mintzakide, ikasturte bukaera mahaiaren bueltan

Ekainaren 4an, ostegunarekin, Mintzakide ekimeneko partehartzaile aunitz bildu ziren Iruñerriko hainbat herritan. Atarrabian ere egun horretan elkartu ziren, Udaletxe plazan. Mintzakiden ari direnek, izan ere, jaki goxoz hornitutako mahaiaren inguruan bildu, eta behar bezalako gosari legea egin zuten ikasturte bukaera hizketa bizian ospatzeko. Hizketa gaiak, aunitz: ekimenean parte hartzeak zer ekarpen egin dien, zer moduz aritu diren, zenbat ikasi duten eta beste. Ekimenak, izan ere, euskara ikasten ari diren pertsonak biltzen ditu euskaraz hitz egiteko eta mintzamena hobetzeko. Mintzakide arras tresna baliosa baita jendearen mintzamen maila hobetzeko, esperientzia pertsonal aberasgarria izateaz gain.

## Mintzakide, fin de curso en torno a una mesa

El pasado jueves 4 de junio se celebraron en diferentes pueblos de la Comarca de Pamplona encuentros locales de las personas participantes en el programa Mintzakide.

En Villava este encuentro tuvo lugar la mañana del jueves 4 de junio en la Plaza Consistorial. En torno a una mesa bien surtida, las personas participantes en este programa disfrutaron de un gratificante almuerzo y celebraron el fin de curso en animada conversación. El encuentro sirvió para compartir qué les ha supuesto a nivel personal participar en esta iniciativa que pretende conectar a personas euskaldunes con personas en proceso de aprendizaje con el objetivo de mejorar su euskera hablado. Mintzakide es una herramienta muy eficiente para mejorar el nivel hablado de la lengua, pero también una enriquecedora experiencia personal.


MI LLÁN ÓPTICA AUDIOCENTRO

OPTOMETRÍA AVANZADA
CONTROL DE MIOPÍA
CONTACTOLOGÍA AVANZADA
AUDIOLOGIA

AÑOS CONTIGO 30 URTE ZUREKIN

Ezkaba, 5 (Villava • Atarrabia) | opticamillan@gmail.com | 685 1843 95 | 948 143 640

# KULTURA | CULTURA

## Kultur Etxearen XV. urteurrena

**Maiatzaren 25etik 31ra ospatu zen, jarduera sorta zabalaren bidez**

## XV aniversario de la Casa de Cultura

**Se celebró la semana del 25 al 31 de mayo con un variado programa de actividades**























# Sormen ikastaro eta tailerren izen-ematea ekainera aurreratu da

Matrikula epea ekainaren 4tik 26ra artekoa da. 19 ikastaro eskaintzen dira; bat, berria: “Rockaren eta pop musikaren historia”




# Se adelanta a junio la inscripción de los cursos y talleres creativos

El plazo de matrícula es del 4 al 26 de junio. Se ofertan 19 cursos con una novedad: “Historia del rock y la música pop”

| Ikastaroa<br>Curso | Emailea<br>Profesor/a | Eguna<br>Día | Ordutegia<br>Horario |
|---|---|---|---|
| Irakurketa Taldea(hastapena)<br>Club lectura, iniciación | Maite Pérez | Hileko 2. asteartean<br>2º martes mes | 19:00 - 20:30 |
| Irakurketa Taldea (2. maila)<br>Club lectura, nivel 2 | Maite Pérez | Hileko 4. asteartean<br>4º marte mes | 19:00 - 20:30 |
| Ez izan beldurrik poesiari<br>Pierde el miedo a la poesía | José Luis González | Asteazkena<br>Miércoles | 19:30 - 21:00 |
| Argazkia eta bideoa Smartphonerekin eta lotutako app-ekin<br>con Smartphone y apps asociadas | Luis Arellano | Astelehena<br>Lunes | 19:00 - 21:00<br>Fotografía |
| Ingelesa bidaiarientzat<br>Inglés para viajeros | Mikel Otazu | Osteguna<br>Jueves | 19:30 - 21:00 |
| Historiaren istorioak. Nafarroa II<br>Historia de las Historias. Navarra II | Aitor Pescador | Astelehena<br>Lunes | 19:30 - 21:00 |
| Rockaren eta pop musikaren historia<br>Historia del rock y la música pop | Javier Egiluz | Asteazkena<br>Miércoles | 19:30 - 21:00 |
| Euskal Dantzak, hastapena<br>Danzas vascas, iniciación | Mikelats | Asteazkena<br>Miércoles | 18:00 - 19:00 |
| Euskal Dantzak, maila ertaina<br>Danzas vascas, intermedio | Mikelats | Asteazkena<br>Miércoles | 19:05 - 20:05 |
| Euskal Dantzak, aurreratua<br>Danzas vascas, avanzado | Mikelats | Asteazkena<br>Miércoles | 20:10 - 21:10 |
| Zura lantzea<br>Talla de madera | Oscar Guerrero | Asteartea<br>Martes | 10:00 - 12:00 |
| Marrazkia: teknikak<br>Dibujo: técnicas | Isabel G. Irurzun | Asteartea<br>Martes | 17:15 - 18:45 |
| Marrazkia: arkatz erretratua<br>Dibujo: retrato a lápiz | Isabel G. Irurzun | Asteartea<br>Martes | 17:15 - 18:45 |
| Olio-pintura<br>Pintura óleo | Isabel G. Irurzun | Astelehena<br>Lunes | 10:00 - 12:00 |
| Olio-pintura<br>Pintura óleo | Isabel G. Irurzun | Asteartea<br>Martes | 19:00 - 21:00 |
| Olio-pintura<br>Pintura óleo | Isabel G. Irurzun | Asteazkena<br>Miércoles | 10:00 - 12:00 |
| Eskulanak<br>Manualidades | Maru Gutiérrez | Astelehena<br>Lunes | 17:00 - 19:00 |
| Eskulanak<br>Manualidades | Maru Gutiérrez | Asteazkena<br>Miércoles | 17:00 - 19:00 |
| Eskulanak<br>Manualidades | Maru Gutiérrez | Osteguna<br>Jueves | 10:00 - 12:00 |

**19 ikastaro, 268 leku**

Kultura Zerbitzuak ikastaro eskaintza zabal eta askotarikoa prestatu du jendeak taldean ikasteko eta sormena sustatzeko. Zehazki, 18 ikastaro eta 268 leku eskaini dira urrian hasi eta 2027ko maiatzera bitarte iraunen duen denboraldi berrirako. Informazio guztia hiru-orriko batean banatu da etxez etxe, eta udal webean ikusgai dago.

**19 cursos, 268 plazas**

El Servicio de Cultura ha preparado una amplia y variada oferta de cursos como espacios de aprendizaje en grupo que fomentan la creatividad de las personas. Se ofertan 19 cursos y 268 plazas para la nueva temporada, que va de octubre de este año a mayo de 2027. Se ha buzoneado un tríptico que recoge la información completa, disponible también en la web municipal.

**Berria**

Azken ikasturteko 18 mantendu dira, eta “Rockaren eta pop musikaren historia” gehitu da, Javier Egiluz Lekumberrik emana.

**Novedad**

Se mantienen los 18 del último curso, y se suma “Historia del rock y la música pop”, impartido por Javier Egiluz Lekumberri

**Ikastaroetako programa zehatzak**

Ikastaro guztietako programak Kultur Etxean daude interesdunen eskura.

**Programas detallados de los cursos**

Los programas de los diferentes cursos se encuentran a disposición de las personas interesadas en la Casa de Cultura.

**ATARRABIAN ERROLDATUAK**
**Izen-ematea: irailaren 10era**
- 948 012 012, 8:00etatik 18:00etara
- **www.villava.es**
Banner “012 izen-ematea”

**ATARRABIAN ERROLDATU GABEAK**
**Izen-ematea: Irailaren 11n eta 12an**
- Atarrabiako Kultur Etxean, 16:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera

**PERSONAS EMPADRONADAS EN VILLAVA**
**Inscripción: del 4 al 26 de junio**
- 948 012 012, de 8:00 a 18:00
- **www.villava.es**
Banner “012 izen-ematea”

**PERSONAS NO EMPADRONADAS EN VILLAVA**
**Inscripción: del 1 al 4 de septiembre**
- en la Casa de Cultura, de 16:00 a 21:00 de lunes a viernes

# KULTURA | CULTURA





## Udako zinema | Cine de verano

**Abuztuak 16, 23 eta 30, 22:00etan, Bakearen parkean**

**Los domingos 16, 23 y 30 de agosto a las 22:00 en el parque de la Paz**

**KOMEDIA FAMILIARRA**
**"Padre no hay más que uno 5: Nido repleto" (2025)**
**SANTIAGO SEGURA**
**Abuztuak 16, igandea, 22:00, 100 min**
**Jende guztiarendako**
Guraso batzuek "kabia hutsaren" larrimina sentitzen dute, seme-alabak etxetik alde egiten hasten direnean. Javierrek, ordea, "kabia betearen" sindromea pairatzen du: inor ez baita etxetik joaten.

**DRAMA**
**"SIRÂT" (2025)**
**OLIVER LAXE**
**Abuztuak 23, igandea, 22:00, 114 min**
**Ez dago gomendatua 7 urtetik beherakoentzat**
Gizon bat eta semea Marokoko rave batera iritsi dira. Alaba eta arrebaren bila dabiltza (Mar), hainbat hilabete lehenago jai horietako batean desagertua. Ravezale talde bat ezagutu eta haien atzetik joanen dira basamortuan ospatuko den azken jai batera, gazte desagertua aurkituko dutelakoan.

**DRAMA SOZIALA**
**"GAUA" (2025)**
**PAUL URKIJO**
**Euskaraz**
**Abuztuaren 30a, igandea, 22:00, 93 min**
**Ez dago gomendatua 16 urtetik beherakoentzat**
Euskal mendiak, XVII. mendea. Sorgin ehiza betean, Kattalin, senarrarengandik ihesi, bere baserritik aterako da gauaren erdian. Ihesean dabilela, hiru emakume topatuko ditu, hirurek beldurrezko ipuinak eta esamesak kontatzen dituztela. Kattalinen harridurarako, bera izanen da istorio horien protagonista.

**COMEDIA FAMILIAR**
**"Padre no hay más que uno 5: Nido repleto" (2025)**
**SANTIAGO SEGURA**
**Domingo 16 agosto, 22:00, 100 min**
**Para todos los públicos**
Algunos padres y madres experimentan la angustia del "nido vacío" cuando sus hijos e hijas empiezan a abandonar el hogar. Javier, en cambio, sufre el trauma del "nido repleto": nadie se va de casa.

**DRAMA**
**"SIRÂT" (2025)**
**OLIVER LAXE**
**Domingo, 23 de agosto, 22:00, 114 min**
**No recomendada para menores de 7 años**
Un hombre y su hijo llegan a una rave en Marruecos. Buscan a Mar, su hija y hermana, desaparecida hace meses en una de esas fiestas. Conocen a un grupo de raveros y deciden seguirlos a una última fiesta que se celebrará en el desierto, donde esperan encontrar a la joven desaparecida.

**DRAMA SOCIAL**
**"GAUA" (2025)**
**PAUL URKIJO**
**En euskera**
**Domingo, 30 de agosto, 22:00, 93 min**
**No recomendada para -16 años**
Montañas vascas, siglo XVII. En plena caza de brujas, Kattalin huye de su marido abandonando el caserío en mitad de la noche. En su camino, se topa con tres mujeres que comparten cuentos de miedo y habladurías. Para su asombro, acabará convirtiéndose en parte de esas historias.

## Antzerkia-Zirkua familientzat | Teatro-Circo familiar

**Abuztuak 18 eta 25, 20:00etan, Udaletxe plazan**

**18 y 25 de agosto, a las 20:00, en la plaza Consistorial**




**UMOREA, ZIRKUA, MAGIA**
**"El circo del Señor Julián"**
**JULIÁN Y PENDORCHO**
**Abuztuak 18, asteartea, 20:00**
Familiendako ikuskizuna, umorez, magiaz eta zirkuz betea. Julián jauna ikuskizuna hasteko prest dagoenean, Pendorchok, praktikak egiten ari den pailazoak, ohartarazten dio artista guztiek alde egin dutela, konpainiako izarrak, Bebak, barne. Gauza ote dira saioa haiek bakarrik egiteko?

**ZIRKUA-UMOREA-MUSIKA**
**"Sinfonika Afonika". Euskaraz**
**ZIRIKA ZIRKUS**
**Abuztuak 25, asteartea, 20:00**
Sinfónika Afónika zure herriko plazara heldu da. Bizitza guztia kontserbatorioan eman ondoren, artistek beren ibilbideari ekin diote eta beren dohainak erakusteko prest agertuko dira... Ikuskizunean badira orekak, akrobaziak, akroporteak, clown eta malabareak, bai eta musika eta dantzak ere.

**HUMOR, CIRCO, MAGIA**
**"El circo del Señor Julián"**
**JULIÁN Y PENDORCHO**
**18 de agosto, martes, 20:00**
Espectáculo familiar con humor, magia y circo. Cuando el Señor Julián se dispone a comenzar el espectáculo, Pendorcho, payaso en prácticas, le advierte de que todos los artistas, incluida Beba, la estrella de la compañía, se han marchado. ¿Serán capaces de sacar adelante la función ellos solos?

**CIRCO-HUMOR-MÚSICA**
**"Sinfonika Afonika". En euskera**
**ZIRIKA ZIRKUS**
**25 de agosto, martes, 20:00**
Espectáculo familiar de circo, humor y música. La Sinfónika Afónika ha llegado a la plaza del pueblo. Tras una vida en el Conservatorio, sus artistas inician una nueva andadura dispuestos y dispuestas a mostrar sus habilidades... Espectáculo que fusiona equilibrios, acrobacias, acroportes, clown y malabares con música y bailes.

## Kontzertuak | Conciertos

**Abuztuak 21 eta 28, 20:00etan, Udaletxe plazan**

**Viernes 21 y 28 de agosto, a las 20:00, en la plaza Consistorial**

**KLASIKOAK EUSKARAZ**
**"Hogei Berriro" TXUMA FLAMARIQUE**
**Abuztuak 21, ostirala, 20:00**
Kantaldiaren bidez, musika kalitate handiko abestiak eta doinu zein letra ederrak ardatz izaniko garaira itzuliko gara, guztiak ere gure musikaren ondarearen osagai. Txuma Flamariquek, Maite Txurrukarekin eta Jon Uribeetxeberriarekin batera, euskal artista handien printza berrikusiak ekarriko baitizkigu gure gozamenerako: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Itoiz, Hertzainak, Ruper Ordorika, Lete, etab.

**RANTXERAK**
**MARIACHI IMPERIAL DE GUANAJUATO**
**Abuztuak 28, ostirala, 20:00**
Taldea Mexikoko Guanajuato estatutik etorriko da Nafarroara. 10 musikari/kantari dira (biolinak, tronpetak, gitarroia, bihuela eta akordeoia), bai eta dantza bikote bat ere. Printza ezagunak gozatuko ditugu, hala nola: "Guadalajara", "Jalisco", "El Preso Nº 9", "México Lindo", "Las Mañanitas", "Volver, volver"...




**CLÁSICOS EN EUSKERA**
**"Hogei Berriro" TXUMA FLAMARIQUE**
**21 de agosto, viernes, 20:00**
Este concierto nos devolverá por un rato a un tiempo en el que fueron protagonistas canciones de gran calidad musical y preciosas melodías y letras que son parte de nuestro patrimonio musical. Txuma Flamarique, junto a Maite Txurruka y Jon Uribeetxeberria, nos deleitarán con un repertorio de clásicos revisados de grandes artistas euskaldunes: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Itoiz, Hertzainak, Ruper Ordorika, Lete, etc.

**RANCHERAS**
**MARIACHI IMPERIAL DE GUANAJUATO**
**28 de agosto, viernes, 20:00**
El grupo Mariachi Imperial de Guanajuato (México) lo forman 10 integrantes: 8 músicos/cantantes -violines, trompetas, guitarrón, vihuela, acordeón- y una pareja de baile. Nos regalarán temas como: "Guadalajara", "Jalisco", "El Preso Nº 9", "México Lindo", "Las Mañanitas", "Volver, volver"...

# Herriko kultur eta arte eragileak, klik batera

## Kultura Zerbitzuak kultur eta arte eragileen mapaketa eginen du Atarrabiako gida digital bat argitaratzeko

Udalerri bateko kultura eta artea garatzen laguntzen duten erakundeak, elkarteak, taldeak, pertsonak, etab. jotzen dira kultur eragiletzat. Herriko kultur jardueraren protagonista nabarmenak dira, guztiz funtsezkoak udalerriko kultur politikak egituratzeko. Denborarekin batera bilakatzen dira: eragile berriak sortu, eta beste batzuek beren ibilbidea amaitzen dute.

Ekimenaren bidez, Kultura Zerbitzuak bi xede ditu: batetik, herriko kultur elkarte eta taldeen gida eguneratzea, eta bestetik, kultur eta arte eragileen gida digital bat argitaratzea, Atarrabian bizi diren kultur profesionalak barne. Gida digital honetan sartu nahi duten erakunde, talde eta profesionalek **abuztuaren 10era** arteko epea izanen dute **fitxa** betetzeko. Fitxa Kultur Etxean izanen dute eskura edota cultura@villava.es e-mailaren bidez eskatzen ahalko dute.

# Agentes culturales y artísticos locales a un klick

## Cultura va a realizar un mapeo de agentes culturales y artísticos con la finalidad de editar una guía digital de Villava

Se consideran agentes culturales aquellas entidades, asociaciones, colectivos, personas, etc. que contribuyen a la vida cultural y artística de un municipio. Son protagonistas destacados de su dinámica cultural y fundamentales para la articulación de las políticas culturales de un municipio. Evolucionan en el tiempo: surgen nuevos agentes y otros concluyen su recorrido.

Con esta iniciativa, el Servicio de Cultura pretende, por un lado, actualizar la guía de asociaciones y colectivos culturales existente, y, por otro, editar una guía digital de agentes culturales y artísticos, incluyendo a las personas profesionales de la cultura que viven en Villava.

Las entidades, colectivos y profesionales que deseen ser incluidos en esta guía digital tienen de plazo **hasta el 10 de agosto** para cumplimentar la **ficha** que tendrán a su disposición en la Casa de Cultura o podrán solicitar a través del correo: cultura@villava.es



# "Petri Atarrabiako" lehiaketako sariak

Joan den maiatzaren 8an, XXXVII. "Petri Atarrabiako" haur kondagintza lehiaketako sariak banatu ziren udaletxeko batzar aretoan. 170 lan aurkeztu dira gaztelaniaz (122 Lehen Hezkuntzakoak, eta 48, Bigarren Hezkuntzakoak) eta 33 euskaraz (31 Lehen Hezkuntzakoak eta 2 Bigarrenekoak).

**GAZTELANIAZ**, LHko III. zikloko kategorian, "Súper aitatxi" lana izan da irabazlea, **Ibai Zabalza Ballesta**k ondua (Atargi). Bigarrena, "El apagón", **Dylan Laica**k egina (La Presentación ).

DBHko 1. eta 2. mailetako kategorian, lehen saria "Escuchar lo que realmente importa" lanarentzat izan da, **Elvia Gómez Troya**k idatzia (Pedro de Atarrabia DBHI), eta bigarrena, "Las crónicas de los hermanos Becker" idazlanarentzat, **Mayara Mendes Fernandes**ek egina (La Presentación).

**EUSKARAZ**, LHko III. zikloko kategorian, "Bidai magikoa" lana izan da irabazlea, **Ibai Esparza Asiain**ek idatzia (Atargi). Bigarrena, "Malenen bidaia", **Mixele Izagirre Barbarin**ek egina (Atargi). DBHko 1. eta 2. mailetako kategorian, "Azken balea" izan da lan irabazlea, **Oinatz Martínez Caldito**k idatzia, (Paz de Ziganda Ikastola). Bigarrena eman gabe gelditu zen.

# Premios del concurso "Pedro de Atarrabia"

El 30 de abril se entregaron en el salón de plenos del Ayuntamiento los premios de la edición XXXVII del concurso de narrativa infantil "Pedro de Atarrabia", al que han concurrido 170 obras en castellano (122 de Primaria y 48 de Secundaria) y 33 en euskera (31 de Primaria y 2 de Secundaria).

En **CASTELLANO**, en la categoría III Ciclo de Primaria, el trabajo ganador fue "Súper aitatxi" de **Ibai Zabalza Ballesta** (Atargi). Quedó segundo "El apagón", de **Dylan Laica** (La Presentación ).

En el tramo 1º y 2º de ESO, el primer premio fue para "Escuchar lo que relamente importa", de **Elvia Gómez Troya** (Pedro de Atarrabia), y el segundo para "Las crónicas de los hermanos Becker", de **Mayara Mendes Fernandes** (La Presentación).

En la modalidad de **EUSKERA** ganó en la categoría III Ciclo de Primaria la obra "Bidai magikoa", de **Ibai Esparza Asiain** (Atargi). Quedó segunda "Malenen bidaia", de **Mixele Izagirre Barbarin** (Atargi).

En la categoría 1º y 2º de E.S.O., el trabajo ganador fue "Azken balea", de **Oinatz Martínez Caldito** (Paz de Ziganda ). El segundo se declaró desierto.










## Udalak 76.320 euro eman ditu Atarrabiako elkarteen kultur eskaintza babesteko

## El Ayuntamiento apoya con 76.320 euros la oferta cultural de las asociaciones de Villava



**DIRULAGUNTZA ARRUNTAK / SUBVENCIONES ORDINARIAS**

| Erakundea / Entidad | Besbeletza / Patrocinio | Zenbatekoa (€) / Importe |
|---|---|---|
| San Andres adinekoen elkartea<br>Asociac. de personas mayores San Andrés | Eguberrietako programazioa<br>Programación anual | 8.902 |
| Etxe-Beltza | Atarrabiako Eguna | 11.000 |
| | Inauteriak eta Olentzero / Carnavales y Olentzero | 10.268 |
| Karrikaluze | Eguberrietako programazioa<br>Programación anual | 9.000 |
| Betekiaren Kofradia<br>Cofradía del Relleno | Kofradiaren batzarra<br>Capítulo de la Cofradía | 3.002 |
| Hiritartasun Eskolak<br>Escuela de Ciudadanía | Urteko hitzaldi sorta<br>Ciclo anual de conferencias | 2.600 |
| Foto 67-M | Erakusketa eta 2026ko egutegia<br>Exposición y calendario 2026 | 2.218 |
| San Andrés Jaiotzagileen elkartea<br>Asociación Belenistas San Andrés | Eguberrietako programazioa<br>Programación en Navidad | 4.092 |
| Errege Magoen Kabalgata<br>Cabalgata de Reyes Magos | Errege Magoen Kabalgata<br>Cabalgata de Reyes | 4.389 |
| Txirimiri Elkartea | Jarduerak / Actividades | 2.085 |
| Paz Ziganda | Xake txapelketa / Torneo de ajedrez | 564 |

**DIRULAGUNTZA BEREZIAK / SUBVENCIONES EXTRAORDINARIAS**

| | | |
|---|---|---|
| Etxe-Beltza | Olentzero irudia / Figura Olentzero | 1.200 |
| Comparsa de Kilikis / Figura Olentzero | XXX. urtemuga / XXX Aniversario | 3.000 |
| Errege Magoen kabalgata elkartea<br>Asociación Cabalgata de Reyes Magos | Orgak konpontzea / Arreglo carrozas | 4.000 |
| Jaiotzagileen Elkartea / Asociación Belenistas | Patrimonio inmaterial | 5.000 |
| Napetxak zanpantzar | Joaldunak Euskal Herria | 3.000 |
| Jai Batzordea | San Juan eta Gau Beltza | 2.000 |

### Kultur Etxeko gelen erabilera

**EKAINAREN 26ra ARTE.** Kultur Etxeko gelak 2026-27 ikasturtean etengabe erabili nahi dituzten erakunde, elkarte eta taldeek eskaera aurkeztu behar dute ekainaren 26ra arte Kultur Etxean. Eskabideak eta argibideak HHBean eta Kultur Etxean berean.

### Uso de salas de la Casa de Cultura

**HASTA EL 26 DE JUNIO.** Las entidades, asociaciones y colectivos que deseen hacer uso de las salas de la Casa de Cultura de manera continuada en el curso 2026-27 pueden presentar su solicitud hasta el 26 de junio en la Casa de Cultura. Instancias e información en la OAC y en la propia Casa de Cultura.

## Aire zabaleko liburutegia Martiketeko igerilekuetan

**UZTAILAREN 15etik ABUZTUAREN 14ra.** Urtero bezala, liburutegi publikoak zerbitzu gehiago eskaintzen ditu udaldian, postu bat paratzen baitu udal igerilekuetan, liburuak, aldizkariak eta egunkariak eskaintzeko bai haurrentzat bai helduentzat. Ordutegia 16:30etik 20:00etara izanen da.
Kultur Etxeko liburutegiak, bestalde, goizera eraman du bere ordutegia, ekainaren 15etik irailaren 14ra (bi datak barne). Ordutegia 8:30etik 14:30era.
Liburutegia eta Kultur Etxea uztailaren 6tik 14ra egonen dira itxita.



## Biblioteca al aire libre en las piscinas de Martiket

**DEL 15 DE JULIO AL 14 DE AGOSTO.** Como todos los años, la Biblioteca Pública amplía sus servicios en verano con un puesto de lectura en las piscinas municipales de libros, revistas y periódicos tanto para edad infantil como para personas adultas. El horario será de16:30 a 20:00.
La biblioteca de la Casa de Cultura, por su parte, traslada su horario de apertura a la mañana (de 8:30 a 14:30) entre el 15 de junio y el 14 de septiembre (ambas fechas incluidas).
La Biblioteca y la Casa de Cultura permanecerán cerradas del 6 al 14 de julio.



## Kilikien Konpartsak maiatzaren 9an ospatu zuen bere 30. urtemuga

## La comparsa de kilikis celebró el 9 de mayo su 30 aniversario













# GIZARTE ZERBITZUAK | SERVICIOS SOCIALES




## JANTOKI BEKAK Epea, ekainaren 26ra arte

## BECAS-COMEDOR plazo, hasta el 26 de junio

Epea ekainaren 1az geroztik dago zabalik eta hilaren 26ean itxiko da. Atarrabian eta Ezkabarten bizi eta haur eta lehen hezkuntzan eskolatuta dauden haurrendako dirulaguntza da, eskolako jantokiak erabiltzeko.

El plazo para la solicitud de ayuda económica para el uso de comedores escolares a población infantil escolarizada en Primaria e Infantil residente en Villava y Ezkabarte comezó el 1 de junio y finaliza el 26.

## Hazkuntza taldea, 0-1 urteko umeak dituzten familiendako

## Grupo de crianza para familias con menores de 0 a 1 año




Atarrabiako haur sarearen baitan, hazkuntzan talde bat osatu berri da maiatzean, 0-1 urteko umeak dituzten familiei zuzendua. Umetxoak nola zaindu, familiaren ongizatea eta beste gai batzuk jorratu zituzten. Hainbat erakunde aritu ziren: osasun etxea, haur eskola, Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Zerbitzua, Sexu eta Ugalketa Osasunaren Arretarako Zentroa eta Gizarte Zerbitzua.

En el marco de la red de infancia de Villava, en mayo se organizó un grupo de crianza, actividad dirigida a familias con menores entre 0 y 1 año. Abordó temas relativos a los cuidados de bebé y al bienestar familiar. Participaron el centro de salud, la escuela infantil, Atención a la Infancia y Adolescencia (EAIA), el Centro de Atención a la Salud Sexual y Reproductiva (CASSYR) y el Servicio Social.

## Kontziliazioa udan

## Conciliación en verano

Udako hiri kanpaldiak Kultur Etxean eginen dira uztailaren 15etik abuztuaren 31ra, euskaraz eta gaztelaniaz. Ordutegia 8:30etik 14:30era izanen da, lehen eta azken ordu erdia malguak izanen direla.

La Casa de Cultura acogerá del 15 de julio al 31 de agosto las colonias urbanas quincenales de verano en castellano y en euskera. El horario será de 8:30 a 14:30, con la primera y la última media hora flexible.

## Tailerrak: etxeko ekonomia eta 0-6 urtekoen hazkuntza

## Talleres de economía doméstica y crianza 0-6 años

Udaberrian, Gizarte Zerbitzuak bi tailer antolatu ditu. Lehena, "Zaindu zure dirua", Oinarrizko Gizarte Zerbitzua erabiltzen duen jendeari zuzendua, etxeko kudeaketa ekonomikoaz eta fakturen irakurketaz ikasteko eta, aurten, baita etxebizitzari buruz ere. Helburua da etxeko aurrekontuaren eraginkortasuna hobetzeko jarraibideak ematea.

"Amen taldea" tailerra, bestalde, psikologo batek eman du, eta 0-6 urteko haurrak dituzten amei dago zuzendua, hazkuntzari buruzko kezkei buruz hitz egiteko.

Esta primavera el Servicio Social ha organizado dos talleres. El primero, "Zaindu zure dirua", estaba dirigido a persona usuaria de SSB que quiera adquirir conocimientos sobre la gestión económica familiar, lectura de facturas y, este año también, sobre vivienda. El objetivo es dar pautas para mejorar la eficiencia del presupuesto familiar. El taller "Grupo de madres", por su parte, lo imparte una psicóloga y está orientado a madres con menores en edades de 0 a 6 años con el fin de compartir inquietudes relativas a la crianza.

## Nola lagundu sexu hasiera nerabezaroan

## Cómo acompañar la iniciación sexual en la adolescencia

Iratxe Arretxea sexologoak tailer bat eman zuen apirilaren 21ean eta 23an, gurasoei zuzendua, Gaztelekun, hots, "Nerabezaroaren hasiera. Zure seme-alaben sexualitatearen kolore berrien eklosioa" izenburupean. Tresnak eskaintzea eta ikuspegi integral bat ematea izan zuen tailerrak helburu, seme-alaba nerabeen sexualitatearen esplorazioa ulertzeko eta laguntzeko, hitz eginez eta harreman gogobetegarriak eraikiz. "Kolore berrien eklosioa" izenburuan jasoa dago seme-alabek bizitzan beren sexualitatea agertzen hasten duten unea (identitateak, desioak, mugak...), eta helduen laguntza behar dute, laguntza malgua, informatua eta gogoetatsua sexuaz dituzten ideien eta beldurren gainean aritzeko.
9 emakumek eta gizon batek parte hartu zuten, tailerrari arras ongi iritzita.

Con el título "El inicio de la adolescencia. La eclosión de nuevos colores de la sexualidad de tus hijos e hijas", la sexóloga Iratxe Arretxea impartió los días 21 y 23 abril un taller en el Gazteleku dirigido a padres y madres. El objetivo de la actividad fue ofrecer herramientas y una perspectiva integral para comprender y acompañar la exploración de la sexualidad de sus hijos/as adolescentes, promoviendo el diálogo y la construcción de relaciones satisfactorias. El título, "La eclosión de nuevos colores", simboliza el momento vital en el que las hijas e hijos comienzan a manifestar su sexualidad (identidades, deseos, límites...) requiriendo un acompañamiento adulto que sea fl exible, informado y refl exivo con sus propias ideas sobre sexo y miedos.
Participación 9 mujeres y 1 hombre, que valoraron muy positivamente el taller.

# Osasun Etxeak bi tailer eman ditu Jubilotekan

# El Centro de Salud ha impartido dos talleres en la Jubiloteka

Zahartze osasuntsuak hainbat oinarri ditu, hala nola elikadura ona, egunero ariketa fisikoa egitea, medikazio kontrolatua eta aldarte emozional ona.
Hori kontuan harturik, eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko osasun komunitariorako planaren baitan, Osasun Etxeak bi tailer eman zituen maiatzean Jubilotekan, udal zerbitzu hori erabiltzen duen jendearendako. Bata, hilaren 19an, erorikoak prebenitzeko; eta bestea, hilaren 26an, elikadura osasungarria lantzeko.
Lehen saioan (ezkerreko argazkia), osasun etxeko bi erizainek azaldu zuten nola hobetu oreka eta indarra ariketa errazen bidez, erorikoei aurrea hartzeko eta autonomia eta konfiantza handitzeko.
Bigarrenen saioan (eskuineko argazkia), erizainak elikaduraz mintzatu ziren; zehazki, platera metodoa azaldu zuten eta nola aplikatu egunerokoan. Tresna bisual erraza da janari orekatuak sortzeko, platera honela banatuta: % 50, barazkiak; % 25, proteinak, eta % 25, karbohidratoak. Halaber, azukrea eta elikagaien gaia izan zuten hizpide, nola irakurri behar diren etiketak elikagaietan ezkutaturik dagoen azukrea jakiteko. Izan ere, kasu eta adibide batzuk han bertan zuzenean azaldu zituzten, elikagai batzuek daukaten azukre kopuru ikaragarriaz ohartzeko.








Un envejecimiento saludable se basa en una buena alimentación, ejercicio físico diario, medicación controlada y un buen estado emocional.
En este contexto, y enmarcados en el Plan de Salud Comunitaria del Departamento de Salud del Gobierno de Navarra, el Centro de Salud impartió en mayo dos talleres en la Jubiloteca, uno el 19 de mayo en el que se trabajó con las personas usuarias de este servicio municipal la prevención de caídas; y otro el 26 de mayo dedicado a una alimentación saludable.
En la sesión del martes 19 (fotografía de la izquierda), dos enfermeras del centro compartieron de manera participativa cómo mejorar con ejercicios sencillos el equilibrio y la fuerza para prevenir caídas y ganar autonomía y confianza.
En la del martes 26 (fotografía de la derecha), dedicada a la alimentación, explicaron el método plato y cómo aplicarlo en el día a día (una herramienta visual sencilla para crear comidas equilibradas dividiendo el plato en 50% verduras, 25% proteínas y 25% carbohidratos; y abordaron el tema del azúcar en los alimentos a través de la lectura de etiquetas y la identificación de azúcar escondida en los alimentos, con representaciones en vivo de casos que ejemplifican visualmente la enorme cantidad de azúcar que contienen algunos alimentos.






INFO +
juventud@villava.es
948355970 – 662031673



## Udako jarduerak | Actividades de verano

Gaztelekuk jarduera sorta zabala prestatu du esperientziaz beteriko udaldia bizitzeko

El Gazteleku ha preparado una variada oferta de actividades para vivir un verano rico en experiencias

### BIZI UDA
**Gazte Bizi eta Gazte Bizi Plus**

**Izen-ematea eta ordainketa:**
Ekainak 10-19, 948 012 012an (012 Infolokal) edo www.villava.es helbidean

**Gazte Uda Bizi:**
Erroldatuak: 75 €
Ez erroldatuak: 150 €

**Gazte Bizi Plus Uda:**
Erroldatuak: 60 €
Ez erroldatuak: 120 €

* Jarduerek ohi baino gehiago iraunen dute

### GAZTE BIZI UDA
**12 eta 13 urte (2013 eta 2014)**
Abuztuaren 4tik abuztuaren 27ra
Abuztuko astearte eta ostegunetan
11:00- 13:00

**EGITARAUA**

**Abuztuak 4**
ur olinpiadak + txapuzoia

**Abuztuak 6***
irteera Logroñoko Las Norias igerilekura

**Abuztuak 11**
gynkana Atarrabia mitologikoa

**Abuztuak 13***
irteera Usuneko hipikara + Arbaiuneko arroila

**Abuztuak 18***
Donostiako hondartzara ateraldia

**Abuztuak 20***
bizikleta-ibilaldia Sorauenera + txapuzoia

**Abuztuak 25**
jokoak Atarrabiako igerilekuan

**Abuztuak 26-27***
Etxarriko kanpinean kanpaldia

### GAZTE BIZI PLUS UDA
**14-17 urte (2009-2012)**
Abuztuaren 5etik 27ra
Abuztuko asteazkenetan
11:00-13:00

**EGITARAUA**

**Abuztuak 5**
ur olinpiadak Atarrabiako igerilekuan

**Abuztuak 6***
irteera Logroñoko Las Norias igerilekura

**Abuztuak 13***
irteera Usuneko hipikara + Arbaiuneko arroila

**Abuztuak 18***
Donostiako hondartzara ateraldia

**Abuztuak 19***
Irotzera pasealekua bizikletaz

**Abuztuak 26 eta 27***
Etxarriko kanpinean kanpaldia

### HIRU HERRI VERANO
**12-30 urte (1996-2014)**

**Izen-ematea eta ordainketa:**
Uztailak 22-30, 948 012 012an (012 Infolokal) edo www.villava.es helbidean

**EGUZKI EKLIPSEA LERINEN**
**Abuztuak 11 eta 12**
10 €

**PORT AVENTURA**
**Irailak 1**
40 €. Atarrabiako jendeak, lehentasuna

### UDAKO OSTIRALAK EUSKARAZ
**12-17 urte (2014-2009)**
Izen-ematea eta ordainketa: ekainaren 10etik 19ra, 948 012012an (012 infolokal) edo www.villava.es helbidean

**AQUAZONE SENPERE UR-PARKEA**
**Abuztuak 7 ostirala**
Erroldatuak: 25 €
Ez erroldatuak: 50 €

**HONDARRIBIKO HONDARTZARA IRTEERAA + KAYAK + PADDLE SUP + SNORKEL Fraileen kalan**
**Abuztuak 21, ostirala**
Erroldatuak: 25 €
Ez erroldatuak: 50 €

---

### VIVE EL VERANO
**Gazte Bizi y Gazte Bizi Plus**

**Inscripciones y pagos:**
10-19 de junio, en el 948 012 012 (012 Infolocal) o en www.villava.es

**Gazte Uda Bizi:**
Personas empadronadas: 75 €
No empadronadas: 150 €

**Gazte Bizi Plus Uda:**
Personas empadronadas: 55 €
No empadronadas: 110 €

* La duración de la actividad será superior al horario habitual

### GAZTE BIZI UDA
**12 y 13 años (2013 y 2014)**
Del 4 al 27 de agosto
Martes y jueves de agosto
11:00- 13:00

**PROGRAMA**

**4 de agosto**
ur-olimpiadas + chapuzón

**6 de agosto***
salida Piscinas Las Norias". Logroño

**11 de agosto***
gynkana Atarrabia mitológica

**13 de agosto***
salida hípica Usún + foz de Arbayún

**18 de agosto***
salida a la playa. Donosti

**20 de agosto***
paseo en bici y chapuzon en Sorauren

**25 de agosto**
juegos en las piscinas de Villava

**26 y 27 de agosto***
acampada en el camping de Etxarri

### GAZTE BIZI PLUS UDA
**14-17 años (2009-2012)**
5 al 27 de agosto
Miércoles de agosto
11:00-13:00

**PROGRAMA**

**5 de agosto**
ur-olimpiadas + chapuzón

**6 de agosto***
salida Piscinas Las Norias". Logroño

**13 de agosto***
salida hípica Usún + foz de Arbayún

**18 de agosto***
salida a la playa. Donosti

**19 de agosto***
paseo a Irotz en bici

**26 y 27 de agosto***
Acampada en acampada en el camping de Etxarri

### HIRU HERRI VERANO
**12-30 años (1996-2014)**

**Inscripciones y pagos:**
22-30 de julio en el 948 012 012 (012 Infolocal) o www.villava.es

**ECLIPSE DE SOL EN LERÍN**
**11 y 12 de agosto**
10 €

**PORT AVENTURA**
**1 de septiembre**
Precio:
40 €. Prioridad personas de Villava

### VIERNES DE VERANO EN EUSKERA
**12-17 años (2014-2009)**
Inscripción y pago: del 10 al 19 de junio, en el 948 012012 (012 infolocal) o en www.atarrabia.eus

**ACUÁTICO AQUAZONE SENPERE**
**Viernes 7 de agosto**
personas empadronadas: 25 €
no empadronadas: 50 €

**SALIDA A LA PLAYA DE HONDARRIBIA + KAYAK + PADEL SUP + SNORKEL en la cala de Los Frailes**
**Viernes 21 de agosto**
personas empadronadas, 25 €,
no empadronadas: 50 €

YouTube
Atarrabiako Gaztelekua

662 031673
948 35 59 70

INFO +
juventud@villava.es
948355970 – 662031673

# 2026–2027 IKASTURTEKO TAILERRAK

**Izen-ematea eta ordainketa:**
**Ekainak** 10-19, 948 012012an (012 infolokal) edo www.villava.es helbidean

### GAZTEENTZAKO ANTZERKI TAILERRA
Uharte, Atarrabia eta Burlatako 12-17 urte bitarteko gazteentzat (2014-2009).

**Hizkuntzak:** euskarazko taldeak (Uharteko Ugazten) eta gaztelaniazkoak (Atarrabiako Gaztelekun)
**Noiz eta ordutegia:** ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara
**Iraupena:** urriaren 15etik apirilaren 22ra (apirilaren 29an antzerki-erakustaldia izanen dugu)
**Prezioa:** 85 €

### HEZKUNTZA BOXEO TAILERRA
12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat (2014-2009)

**Noiz eta ordutegia:** asteartetan, 17:00etatik 18:00etara
**Iraupena:** urriaren 13tik apirilaren 27ra
**Prezioa** sarri iragarriko da Gaztelekuko sareetan eta udal webean

### 3 HERRI DANCE STUDIO TAILERRA (hip hop, k-pop, vogue...)
12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat (2014-2009)

**Noiz eta ordutegia:** astelehenetan, 18:00etatik 19:00etara
**Iraupena:** urriaren 19tik apirilaren 26ra (apirilaren 29an dantza-erakustaldia izango dugu)
**Prezioa:** 65 €
**Irakaslea:** Taupadak Dance Studio
**Oharra:** eskolak Atarrabiako, Burlatako eta Uharteko Gaztelekuetan izanen dira

### BETAZALA PROGRAMA “Aisia eta ongizate emozionala”
12-17 urte bitarteko gazteentzat (2014-2009)

**Noiz eta ordutegia:** asteazkena (hamabostean behin), 17:00etatik 19:00etara
**Iraupena:** Urriaren 14tik ekainaren 23ra
**Prezioa:** 30 €

# TALLERES CURSO 2026–2027

**Inscripciones y pagos:**
10-19 de junio, en el 948 012 012 (012 Infolocal) o en www.villava.es

### TALLER DE TEATRO JUVENIL
Dirigido a jóvenes de 12 a 17 años (2014-2009) de Huarte, Villava y Burlada.

**Idiomas:** grupos en castellano (en el Gazteleku de Villava) y en euskera (en el Ugazte de Huarte)
**Días y horario:** jueves, de 17:00 a 19:00
**Duración:** 15 de octubre-22 de abril (29 de abril, muestra de teatro en la Casa de Cultura)
**Precio:** 85 €

### BOXEO EDUCATIVO
Dirigido a jóvenes de 12 a 17 años (2014-2009)

**Días y horario:** martes, de 17:00 a 18:00
**Duración:** 13 de octubre-27 de abril
**Precio:** se anunciará proximamente en redes del Gazteleku y en la web municipal

### TALLER 3 HERRI DANCE STUDIO (hip hop, k-pop, vogue...)
Dirigido a jóvenes de 12 a 17 años (2014-2009) de Villava

**Días y horario:** lunes, de 18:00 a 19:00
**Duración:** 19 de octubre-26 de abril (29 de abril, muestra en la Casa de Cultura)
**Precio:** 65 €
**Imparte:** Taupadak Dance Studio
**Aviso:** las clases se impartirán en los Locales juveniles de Villava, Burlada y Huarte

### PROGRAMA BETAZALA “Ocio y Bienestar emocional”
Dirigido a jóvenes de 12 a 17 años (2014-2009)

**Días y horario:** miércoles (quincenal), de 17:00 a 19:00
**Duración:** 14 de octubre-23 de junio
**Precio:** 30 €



# Udalak jaiei buruz galdetu die gazteei

# El Ayuntamiento pregunta a la juventud sobre fiestas

Joan den maiatzaren 15ean, Gazteria arloak bilera egin zuen Gaztelekun 15-17 urte arteko gazteekin, festetan zer jarduera egitea nahi luketen jakiteko. Bileran, gainera, denen artean, inkesta bat prestatu, eta ikastetxeetan eta herrian barna banatu da. Helburua da adin tarte horretako gazteen gustu eta zaletasunekin bat datozen jarduerak sartzea jai egitarauan. Gazteren batek proposamenik badu, jar dadila harremanetan Udalarekin.

El 15 de mayo el área de Juventud mantuvo una reunión en el Gazteleku con jóvenes de entre 15 y 17 años para conocer qué actividades les gustaría que se programaran en fiestas. Durante el encuentro, prepararon una encuesta que se repartió en centros escolares y en la localidad. El objetivo es incluir en el programa de fiestas actividades acordes a los gustos y preferencias de las y los jóvenes de esa franja de edad. Si algún joven tiene alguna propuesta, puede ponerse en contacto con el Ayuntamiento

# Sex Buzoiaren zerbitzu digitala

# Servicio digital de Sex Buzoia




Sex Buzoia programak zerbitzu digitala eskaintzen du sexualitateaz dituzun galderak bidaltzeko eta, era berean, galde-erantzunak jasotzen dituen buletina eskuratzeko. Hainbat tokitan paratua dagoen QR baten bidez sartu beharra dago zerbitzuan; zehazki, Kultur Etxean, Martiket igerilekuetan, udaletxean, Atarrabia pilotalekuan, etxabeetan eta herriko hainbat tabernatan. QRak online galdetegi batera eramanen zaitu. Halaber, beste bide batzuk moldatu dira galderei erantzuteko; Instagram eta TikTok bidez, hain zuzen ere.

El programa Sex Buzoia te ofrece un servicio digital para que puedas enviar tus consultas sobre sexualidad y acceder al nuevo boletín con las preguntas y respuestas recogidas. Se accede desde un QR presente en carteles colocados en la Casa de Cultura, piscinas Martiket, Ayuntamiento, frontón Atarrabia, bajeras y diferentes bares del pueblo. Este QR enlaza con un formulario online. También hay novedades en la forma de responder a las consultas. Se hará por distintos canales: Instagram y TikTok.




# HAZiera, 20 gazterekin abian

# HAZiera echa a andar con 20 jóvenes

55 gaztek egin dute HAZIera programan parte hartzeko eskaera, enpleguan hasteko: 19 neskak eta 36 mutilek, hain zuzen. Udalak uda oro abian jartzen duen ekimenaren helburua da lan mundua gure herriko 16-23 urte arteko gazteengana hurbiltzea, beren lehen enplegua lortzeko eta enpleguaren bilaketa aktiboarekin lotutako alderdiei buruzko prestakuntza jasotzeko.
Parte-hartzaileak aukeratzeko elkarrizketak maiatzaren 12an, 14an eta 18an egin ziren eta, dagoeneko, aukeratu dituzte HAZIera 2026an arituko diren 20 gazteak.
Iaz bezala, aurten 10na tokiko bi txanda antolatu dira. Lehena, ekainaren 18tik uztailaren 3ra (ekainaren 18an eta 19an, prestakuntza emanen zaie, eta ekainaren 20tik uztailaren 3ra, lanaldiak izanen dira). Bigarren txanda, berriz, uztailaren 16tik 31ra bitarte; (ekainaren 18a eta uztailaren 16a, prestakuntzarako eta, uztailaren 17tik 31ra, lanerako).
Aurreko urteetan bezala, parte-hartzaileak herriko espazio urbanoak eta bestelakoak moldatzen eta hobetzen arituko dira. Horrela, aurreikusita dauden lanen artean, horma-irudi bat eginen dute karrika Nagusiko pasabide berrian, eta mantentze eta kontserbazio lanak, berriz, Bakearen parkean, plaza Gorrietan, Ekogunean eta Ezkaba mendian.

Un total de 55 jóvenes (19 chicas y 36 chicos) ha solicitado participar en el proyecto de iniciación al empleo HAZIera que todos los veranos pone en marcha el Ayuntamiento. Este programa tiene como objetivo acercar el mundo laboral a las chicas y chicos de entre 16 y 23 años de la localidad para que consigan su primer empleo y reciban formación sobre distintos aspectos relacionados con la búsqueda activa de empleo.
Las entrevistas para seleccionar a los y las participantes se realizaron los días 12, 14 y 18 de mayo y ya se han elegido las 20 personas que formarán parte de HAZIera 2026.
Al igual que el año pasado, se programarán dos tandas con 10 plazas cada una. La primera tanda será del 18 de junio al 3 de julio (el 18 y el 19 de junio se destinarán a la formación y las jornadas laborales serán del 20 de junio al 3 de julio). La segunda tanda será del 16 al 31 de julio (18 de junio y 16 de julio para formación y del 17 al 31, trabajo).
Como en ediciones anteriores, los y las participantes realizarán tareas de recuperación de espacios urbanos y no urbanos de la localidad. Entre las actuaciones previstas se encuentran la elaboración de un mural en el nuevo pasadizo de la calle Mayor, labores de mantenimiento y conservación en el parque de la Paz, las Plazas Rojas, el Ekongune y el monte Ezkaba.



## Lehen sorospenei buruzko tailerra

Gazteria arloko hezkuntza taldeak lehen sorospenei buruzko bigarren tailerra jaso zuen, joan den maiatzaren 20an. Aurtengo bigarrena. Elvira López Mardones eta Cristina Esteban Arbeloa erizainek prestakuntza eman zuten bi orduz, bai bihotz-biriketako bizkortzeaz eta eztarriko trabamenduez, bai zauriak, ziztadak eta bero kolpeak sendatzeko sendabideez.

## Taller de primeros auxilios

El equipo educativo del área de Juventud recibió el pasado 20 de mayo el segundo taller de primeros auxilios programado para este año. Durante dos horas, las enfermeras Elvira López Mardones y Cristina Esteban Arbeloa impartieron formación sobre RCPs, atragantamientos y remedios para curar heridas, picaduras y golpes de calor.

## Jaibus zerbitzua | Servicio de Jaibus

Gazteria eta Gizarte Zerbitzuetako arloek, gazteria Kontseiluarekin batera, aurten ere antolatu dute Jaibus zerbitzua. Nora joan eta ordutegiak finkatze aldera, maiatzean inkesta egin zen herriko gazteen artean, koadrilek eta etxabeek proposatutako aukeren artean. Honatx zer herri aukeratu diren: uztailaren 25ean, Gares; abuztuaren 1ean, Larraintzar; abuztuaren 8an, Agoitz; eta abuztuaren 22an, Aurizberri. Ordutegiari dagokionez, inkestatu gehienek 23:00etatik 7:00etara aukeratu dute (botoen % 76,5).
137 inkesta bete ziren. Haietarik, % 44,5 mutilak izan ziren, % 54,7, neskak, eta % 0,8, ez bitarrak.
Jaibus zerbitzuaren helburua da alkohol eta drogen kontsumo arduratsuaz sentsibilizatzea, prebentzioa egitea, eta gaueko aisia eta sexualitatea berdintasunez eta era osasuntsuan gozatzea. Ateraldi guztietan, gazteek prebentzio eta sentsibilizazio kit bana jasoko dute.




Las áreas de Juventud y Servicios Sociales junto con el Consejo de la Juventud organizan un año más el servicio de Jaibus. Para fijar los destinos y horarios, se realizó en mayo una encuesta entre la juventud entre varias opciones propuestas por cuadrillas y bajeras. Los destinos elegidos fueron: 25 de julio Gares; 1 de agosto Larrainzar; 8 de agosto Aoiz; y 22 de agosto Espinal. En cuanto al horario, el elegido mayoritariamente en la encuesta fue de 23:00 a 7:00 (76,5% de los votos).
De las 137 encuestas completadas, un 44,5% correspondió a chicos, un 54,7% a chicas y el 0,8%restante a personas no binarias.
El programa de Jaibus tiene como objetivo la prevención y sensibilización sobre el consumo responsable de alcohol y drogas y el disfrute del ocio nocturno y de la sexualidad de manera igualitaria y saludable. En todas las salidas, los y las jóvenes recibirán un kit preventivo y de sensibilización.



# Verano en Martiket

# Uda Martiketen



Hona hemen Martiketen udan sartzeko aukerak, urteko 3 abonu modalitateetako bakar bat ere ez dutenentzat (Martiket / Kirol / Oinarrizkoa):

Estas son las opciones de acceso a Martiket en verano para las personas que no disponen de una de las 3 modalidades de abono anual (Martiket / Kirol / Básico):

**ADI!**
Indarrean dirau **URTEKO ABONUAREN SUSTAPENAK**, hasierako matrikula ordaindu gabe (9 hilabetez irauteari lotua).

**¡ATENCIÓN!**
Sigue activa la **PROMOCIÓN** de **ABONO ANUAL** sin pago de matrícula inicial (sujeta a una permanencia de 9 meses).

DISPONES DE FOLLETOS CON INFORMACIÓN COMPLETA DE TARIFAS EN LA RECEPCIÓN DE MARTIKET

TARIFEI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA DAKARTEN FOILETOAK DITUZU ESKURA MARTIKETEKO HARRERAN

## BESTE ABONUAK 2026 / OTROS ABONOS 2026

| | EGUNEKO SARRERA ENTRADA DIARIA | Igerileku estalia + udako igerilekua / Piscina cubierta + piscina de verano | HILEKO ABONUA ABONO MENSUAL | Igerileku estalia + udako igerilekua + muskulazio-gela / Piscina cubierta + piscina de verano + sala de musculación | UDAKO ABONUA ABONO VERANO | Igerileku estalia + udako igerilekua / Piscina cubierta + piscina de verano — Ekainaren 6tik irailaren 6ra / Del 6 de junio al 6 de septiembre |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lanegunetan Laboral | Asteburuetan/Jaiegunetan Fin de Semana/Festivo | Erroldatua Empadronado/a | Ez-erroldatua No empadronado/a | Erroldatua Empadronado/a | Ez-erroldatua No empadronado/a |
| HELDUAK / ADULTO/A | 10,55 € | 12,65 € | 80,75 € | 96,80 € | 227,95 € | 273,45 € |
| GAZTEAK / JUVENIL | 8,45 € | 10,55 € | 56,50 € | 67,65 € | 140,40 € | 168,50 € |
| HAURRAK / INFANTIL | 5,30 € | 7,40 € | 40,20 € | 48,45 € | 122,70 € | 147,30 € |
| 65 URTETIK GORA / MAYOR 65 AÑOS | 6,35 € | 8,45 € | 40,35 € | 48,45 € | 122,70 € | 147,30 € |
| DESGAITUAK/PERSONAS CON DISCAPACIDAD | 5,30 € | 7,40 € | 32,20 € | 38,75 € | 105,25 € | 126,25 € |

### Sarbidea

Bi sarbide daude irekiak Martiketen udaldirako: sarrera nagusia eta igerileku estaliko sarrera (bi kasuetan, sartzeko eta ateratzeko).

### Acceso

Para el acceso a Martiket en temporada de verano están habilitadas tanto la entrada principal como la entrada de la piscina cubierta (en ambos casos, para entrar y salir).

### Igerileku estalia itxita egonen da uztail eta abuztuan

Izan ere, hilabete horietan, neguko denboraldi berrirako beharrezkoak diren mantentze-lanak eginen dira. Beste lan batzuen artean, uda honetan beirateak aldatuko dira.

### La piscina cubierta permanecerá cerrada en julio y agosto

En estos meses se realizarán los trabajos de manteimiento necesarios de cara a la nueva temporada de invierno. Entre otras actuaciones, este verano se van a sustituir las cristaleras.

### Egutegia

Udako igerilekuen denboraldia ekainaren 6an hasi eta irailaren 6an amaituko da, biak barne.

### Calendario

La temporada de las piscinas de verano arranca este año el 6 de junio y finaliza el 6 de septiembre, ambos incluidos.

### Martiket: udako ordutegia

Martiket instalazioak 8:00etatik 22:00etara egonen dira zabalik. Atari zabaleko igerilekuak, 10:00etatik 21:00etara.

### Horario de verano de Martiket

Las instalaciones de Martiket estarán abiertas de 8:00 a 22:00.
Las piscinas al aire libre, de 10:00 a 21:00.

**ADI!**

### Igerilekuaren jaia, ekainaren 27an, larunbatarekin

Martiketeko igerilekuen jai ospetsua ekainaren 27an ospatuko da, larunbatarekin. Besteak beste, ping-pong torneoa, mus txapelketa, puzgarriak eta kontzertua izanen dira. Sareetan duzu egitarau osoa, bai eta Kirol Martiketen webean eta igerilekuko karteletan ere.

**¡ATENCIÓN!**

### La fiesta de la piscina, el sábado 27 de junio

La popular fiesta de las piscinas de Martiket se celebrará el sábado 27 de junio. Entre otras cosas, habrá torneos de ping-pong, campeonato de mus, hinchables y concierto. Busca el programa completo en redes, en la web de Kirol Martiket y cartelería del recinto.



## Pilota eskolako kadeteen garaipena Nafarroako Kirol Jokoetan

Joan den maiatzaren 16an, lau pilotari aritu ziren Nafarroako Kirol Jokoetako finalean, maila horretako lehen kategorian, laurak ere gure Pilota Eskolakoak. **Ezkurra** eta **Santesteban** atera ziren txapeldun, **Leiza** eta **Rekalde** bikoteari irabaziz. Argazkian, lau pilotariak.

## Triunfo de los cadetes de la Escuela de Pelota en los Juegos Deportivos de Navarra

El pasado 16 de mayo los pelotaris cadetes de la Escuela de Pelota coparon la final de los Juegos Deportivos de Navarra en primera categoría. Los campeones fueron **Ezkurra** y **Santesteban**, que se impusieron a **Leiza** y **Rekalde**. En la foto, los cuatro pelotaris.





**XII Kirolaren Jaia**
Maiatzak 18-22

**XII Fiesta del deporte**
18-22 de mayo







## Berrinskripzioak UKEetan 2026-27 ikasturterako

## Reinscripciones en las EDM para el curso2026-27

Joan den maiatzaren 8an bukatu zen Udalaren Kirol Eskoletan izena emateko epea 2026-27 ikasturterako 2025-26 honetan aritu diren ikasleendako. Izena berriro emateko aukera zuten ikasleetarik (604), 494k lekua eskatu eta bermatua dute 2026-27erako, hau da, guztien % 82,00k. Leku berrietarako eta eskoletako leku libreak hartzeko aurreinskripzioak maia-tzaren 14tik 26ra egin ziren.




El 8 de mayo finalizó el periodo de inscripción en las Escuelas Deportivas Municipales para el curso 2026-27 para el alumnado que ha participado en el curso 2025-26. Del total del alumnado que tenía la opción de reinscribirse (604), 494 han asegurado la plaza para el curso 2026-27, lo que representa un 82 % del total. Las preinscripciones para las nuevas plazas y completar las plazas libres en las diferentes escuelas fueron del 14 al 26 de mayo.

# Jarduerak 12-17 urteko gazteentzat

# Actividades para jóvenes de 12 a 17 años

ORDUBETEKO BI SAIO, ELE BITAKOAK, IRAILAREN 14tik MAIATZAREN 31ra

DOS SESIONES BILINGÜES DE UNA HORA POR SEMANA, DEL 14 DE SEPTIEMBRE AL 31 DE MAYO

**+INFO sobre precios, modo de inscripción y contenidos del programa en el SERVICIO DE DEPORTES DE VILLAVA**
**948 12 49 99**
**deportes@villava.es**

**INFO+ prezioez, izena emateko moduaz eta programaren edukiez ATARRABIAKO KIROL ZERBITZUA**
**948 12 49 99**
**deportes@villava.es**

## MUGITU-INDARTU eta GAZTE AKTIBA JARDUERA ANITZA programen helburua ez da lehia, ongizatea baizik.

Kirol Zerbitzuak, Gazteria Zerbitzuarekin eta Osasun Etxearekin batera, gorputz eta kirol jarduerak egiteko bi programa jarri ditu abian Atarrabiako gazteentzat.
Hona hemen zer onura dakartzan jarduera hauetan aritzeak:

- **OSASUN FISIKO INTEGRALA** Sistema kardiobaskularra eta hezurdura-giharrak indartzea.
- **ONGIZATE MENTALA** Antsietatea eta aldartea kudeatzen laguntzen duten endorfinak liberatzea.
- **SOZIALIZAZIOA** Ingurune dibertigarria, jendea pantailetatik eta eskola-ingurunetik kanpo ezagutzeko.
- **BIZITZA OHITURAK** Helduaroan iraunen duten errutina osasungarrien sustapena.

## El objetivo de los programas MUGITU-INDARTU y GAZTE AKTIBA MULTIACTIVIDAD no es la competición sino el bienestar.

El Servicio de Deportes, en colaboración con el Servicio de Juventud y el Centreo de Salud, ha puesto en marcha dos programas de actividades físico-deportivas dirigidos a la gente joven de Villava.
Estos son los beneficios que aporta la práctica de estas actividades:

- **SALUD FÍSICA INTEGRAL** Fortalecimiento del sistema cardiovascular y músculo esquelético.
- **BIENESTAR MENTAL** Liberación de endorfinas que ayudan a gestionar la ansiedad y el ánimo.
- **SOCIALIZACIÓN** Un entorno divertido para conocer a gente fuera de las pantallas y el entorno escolar.
- **HÁBITOS DE VIDA** Fomento de rutinas saludables que perdurarán en la edad adulta.

## GAZTE AKTIBA JARDUERA ANITZA / GAZTE AKTIBA MULTIACTIVIDAD

12-13 urteko neska-mutilei zuzendutako jarduera diziplina anitza da (2013an eta 2014an jaiotakoak). Sasoi fisikoa, gorputzaren ezagutza eta osasuna landuko dira jarduera sorta zabalaren bidez, guztiak ere, haien adinera eta eboluzio arora egokituak, hala nola sasoi fisiko orokorra lantzeko zirkuituak, patinajea, bestelako kirolak, gorputz kontzientzia, uretako jarduerak igerilekuan eta koreografia musikadunak, besteak beste.

Actividad multidisciplinar dirigida a chicos y chicas de 12 a 13 años (nacidos y nacidas en 2013 y 2014) en la que se trabaja la condición física, el conocimiento del cuerpo y la salud a través de un conjunto variado de actividades adaptadas a su edad y periodo evolutivo, tales como circuitos de condición física general, patinaje, deportes alternativos, conciencia corporal, actividades acuáticas en la piscina y coreografías con música, entre otras.



## MUGITU-INDARTU

Lau jarduera dira (Cross Trainning, Indoor Zikloa eta Cardiobox), 14 eta 17 urteko arteko gazteei zuzenduak (2009-2012an jaioak), sasoi fisikoa jarduera musikadunen bidez lantzeko, guztiak ere haien adinera eta eboluzio arora egokituak.

Programa compuesto por cuatro actividades (Cross Trainning, Ciclo Indoor y Cardiobox) dirigido a jóvenes de entre 14 y 17 años (nacidos en 2009-2012) y donde se trabaja la condición física a través de actividades con música y adaptadas a su edad y periodo evolutivo.

# Hiru Herri Triatloi Eskola Mankomunatua

Atarrabia, Burlata eta Uharteko Udalek hitzarmena sinatu zuten iazko denboraldian Hiru Herri Atletismo Taldearekin triatloi atal berria sustatzeko eta garatzeko. Horri esker, Uharten erroldatutakoen baldintza beretan ari daitezke Atarrabiako haurrak Triatloi Eskola Mankomunatuan. Jarduera 2011etik 2018ra bitarte jaiotakoentzat da eta Uharteko kiroldegian egiten da. Astean behin igeriketa saio bat egiten dute eta, astean behin ere, atletismo edo txirrindularitza saio bat.

**Izen-ematea ekainaren 12ra arte** Uharteko Ugarrandia kirol instalazioetan 948 13 02 60ra deituz, 8:00etatik 14:30era edo udal webgunean (https://huarte.es/



# Escuela Mancomunada de Triatlon Hiru Herri

En virtud del convenio firmado entre los ayuntamientos de Villava, Burlada y Huarte con el Club Hiru Herri A.T., los niños y niñas de Villava se pueden inscribir en la Escuela Mancomunada de Triatlon en las mismas condiciones en las que lo hacen las y los empadronados en Huarte. La actividad, dirigida a alumnado nacido entre 2011 y 2018, se desarrolla en las instalaciones deportivas de Huarte y consta de una sesión semanal de natación y una sesión semanal de atletismo o ciclismo.

**Inscripciones hasta 12 de junio** en las instalaciones deportivas Ugarrandía de Huarte, llamando al 948 13 02 60 de 8:00 a 14:30 o en la web municipal (https://huarte.es/)

# KIROLAK | DEPORTE

## Bi talde gehiago 60 urtetik gorakoendako programan

Berria!



## Dos grupos más en el programa para mayores de 60 años

¡Novedad!

Kirol Zerbitzuak bi talde berri eskainiko ditu 2026-27 ikasturtean, 60 urtetik gorakoendako jarduera fisikoaren programan. 60 urtetik gorakoendako Jarduera Fisiko Leunerako taldeak dira. Jarduera berriaren bitartez, hobeki artatu nahi dituzte mugimena eta gaitasun funtzionala galtzen joaten diren pertsonak, dela adinez oso aurrera doazelako, dela sasoi fisiko apalagoa dutelako. Azken buruan, jarduera seguruagoa, eraginkorragoa eta gogobetegarriagoa bermatu nahi diete. Osatuak dauden bi taldeak bezala, talde berriak ere Martiketen emanen dira, 3 saio astean (3 ordu), baina karga-bolumen apalagoan; ariketak, gainera, partehartzaileen sasoi fisikora egonen dira doituagoak.

**ORDUTEGIAK**

**1.TALDEA** Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara

**2. TALDEA** Astearte, ostegun eta ostiraletan, 12:00etatik 13:00etara

**HORARIOS**

**GRUPO 1** Lunes, miércoles y viernes de 11:00 a 12:00

**GRUPO 2** Martes, jueves y viernes de 12:00 a 13:00

El Servicio de Deportes ha incorporado a su oferta para el curso 2026-27 dos nuevos grupos dentro del Programa de Actividad Física para mayores de 60 años. Los ha denominado Grupos de Actividad Física Suave para mayores de 60 años. Su puesta en marcha responde a la necesidad de atender de forma más adecuada a las personas que, bien por su edad avanzada, bien por su condición física inferior, van perdiendo movilidad y capacidad funcional. Se trata de garantizar para estas personas una práctica más segura, eficaz y satisfactoria. Al igual que en el caso de los dos grupos existentes, se impartirán en Martiket y constarán de 3 sesiones (3 horas) por semana, pero con una intensidad menor en volumen de carga y ejercicios más ajustados a su condición física.

### Izen-ematea

- **2025-26 ikasturtean parte hartu duten pertsonak:** berrinskripzioa ekainaren 8tik uztailaren 3ra, udal igerilekuetan, 08:30etik 14:00etara, edo Provisport plataforman (abonatuendako soilik, errentaren arabera tarifa murrizteko eskaera egingen ez dutenendako).
- **Izen-emate berria:** Kirol Zerbitzuan, abuztuaren 3tik aurrera, 948124999 telefonora deituz hitzordua eskatzeko. Murrizketa eskatu nahi baduzu, 2025eko ekitaldiko errenta aitorpena aurkeztu beharko duzu.

### Inscripciones

- **Personas que han participado en el curso 2025-26:** reinscripción del 8 de junio al 3 de julio en las piscinas municipales de 8:30 a 14:00 o en la plataforma Provisport (sólo para personas abonadas y que no vayan a solicitar una reducción en la tarifa en función de la renta).
- **Nuevas inscripciones:** en el Servicio de Deportes a partir del 3 de agosto llamando por teléfono al 948124999 para solicitar cita. Si quieres solicitar una reducción, deberán presentar la declaración de la renta del ejercicio 2025.




## Atarrabia, gune kardio-babestua

**1:** IGERILEKU ESTALIKO BOTIKINA (irailaren 1etik ekainaren 15era) eta AIRE LIBREKO IGERILEKUETAKO BOTIKINA (ekainaren 15etik irailaren 1era) **2:** MARTIKET, ERAIKIN NAGUSIA **3:** INDURAIN ANAIAK KIROLDEGIKO HARRERA-BULEGOA **4:** ATARRABIA FRONTOIA **5:** UDALTZAINGOAREN IBILGAILUA (Mugikorra eta/edo osasun etxe ondoan aparkatua)

## Villava, espacio cardio-protegido

**1:** BOTIQUÍN PISCINA CUBIERTA (del 1 de septiembre al 15 de junio ) y BOTIQUÍN PISCINAS AIRE LIBRE (del 15 de junio al 1 de septiembre) **2:** MARTIKET EDIFICIO PRINCIPAL **3:** OFICINA-RECEPCIÓN POLIDEPORTIVO HNOS. INDURAIN **4:** FRONTÓN ATARRABIA **5:** VEHÍCULO POLICÍA MUNICIPAL (móvil y/o aparcado junto centro salud)

# OSASUNA | SALUD

## Zer sartuko dut oporretako botikinean?

Osasun Etxeak aholku batzuk eman ditu, udan ezustekorik ez izateko

## ¿Qué meto en el botiquín de vacaciones?

El Centro de Salud comparte algunos consejos para un verano sin sobresaltos

### FUNTSEZKOA

- Termometro bat –bereziki, haurrekin joaten bagara–; sendaketa egiteko materiala, gazur fisiologikoa barne zauriak garbitzeko, eta sudurreko eta begietako garbiketa egiteko. Antiseptikoak ere bai, hala nola clorhexidina akuosoa; punta borobilduko guraizeak; xiringak, erabili eta botatzekoak, zauriak garbitzeko, sudurretarako, bai eta pediatriako dosifikazioetarako; tiritak; gaza esterilak; esparatrapua; bendak, eta ubeletan hotza emateko poltsak.
- Ahoz berridratatzeko gatzak, beherakoa dugunerako edo etengabe gonbitoka ari garenerako, deshidrataziorik ez izateko.
- Pomadarik ohikoenak intsektuen ziztadetan eta alergietan erabilitakoak dira.
- Sendagaiak: analgesikoak, hala nola parazetamola; hanturen aurkakoak, hala nola ibuprofenoa, eta gripearen aurkakoak.
- Nahasmendurik ez izateko, **EZ** sartu botikinean familiako kideen ohiko tratamenduak.

### GOMENDIOAK

- Sendagaiak botikinean sartu baino lehen, ikusiko dugu noiz iraungitzen diren; bestalde, haien jatorrizko ontzietan sarturik egon beharko dute.
- Botikina haurrak ez iristeko lekuan gordeko dugu, leku fresko, lehor eta garbian, argitik urrun.
- Botikinean sartuko dugu gure helmugako larrialdi zerbitzuetako kontaktuak jasotzen dituen agiri bat.
- Gel hidroalkoholikoa ere sartuko dugu neurri antiseptikoak areagotzeko.
- Aurreko opor bidaiara eraman dugun botikina berrikusiko dugu, sendagaien, pomaden eta beste osasun produktu batzuen iraungipena eta egoera ikusteko.

### HELMUGAKO BALDINTZAK

- Europar Batasuneko herrialde batzuetan jaso daitezke errezeta elektronikoan agindutako sendagaiak (Estonia, Finlandia, Kroazia, Letonia, Lituania, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika eta Grezia). Prezio osoa ordaintzen da eta faktura eskatu beharra dago, Nafarroan dirua itzul diezagutela eskatzeko. Osasunbideko gure osasun txartela aurkeztu beharko dugu, bai eta NANa edo pasaportea ere. Europako osasun txartelak ez du balio sendagaiak hartzeko.
- Gomendagarria da aurrez ikustea zer erregulazio eta baldintza diren gure helmugako herrialdean.
- Osasunaren ikuspuntutik segurua ez den leku batera joatekoak bagara, aurrez informazioa jasoko dugu nazioarteko txertaketa zentroan.
- Eltxoak uxatzeko produktuak. Eltxoen bidez kutsatzen diren gaixotasunak hartzeko arrisku ertain-altuko leku batera joatekoak bagara, DEETek % 50 izan behar du (uxagarrietako osagai aktiboa).




### LO ESENCIAL

- Un termómetro -especialmente si se viaja con niños-; material de curas, entre lo que se encuentra suero fisiológico, para lavado de heridas, lavados nasales y oculares. También antisépticos, como clorhexidina acuosa; tijeras de punta redondeada; jeringas desechables, para lavados de heridas y nasales, así como para las dosificaciones pediátricas; tiritas; gasas estériles; esparadrapo; vendas y bolsas para aplicar frío en caso de contusiones.
- Sales de rehidratación oral, utilizadas en casos de diarrea o vómitos que no cesan o que puedan derivar en una deshidratación.
- Pomadas más habituales son las empleadas en picaduras de insectos y alergias
- Medicamentos: analgésicos, como paracetamol, antiinflamatorios, como el Ibuprofeno, y antigripales.
- Para evitar confusiones, **NO** meter en el botiquín los tratamientos habituales de miembros de la familia.

### RECOMENDACIONES

- Revisar previamente la fecha de caducidad de los medicamentos que incorporamos al botiquín, que deben estar metidos en sus envases originales.
- Guardar el botiquín fuera del alcance de niños y niñas, en un lugar fresco, seco, limpio y alejado de la luz.
- Incorporar al botiquín un documento con los contactos de los servicios de urgencias del lugar de destino.
- Incluir gel hidroalcohólico para extremar las medidas antisépticas.
- Revisar el botiquín de viaje de vacaciones anteriores para comprobar caducidades, estado de los medicamentos, pomadas, y otros productos sanitarios.

### CONDICIONES DEL DESTINO

- En algunos países de la Unión Europea se pueden recoger los medicamentos prescritos en receta electrónica (Estonia, Finlandia, Croacia, Letonia, Lituania, Polonia, Portugal República Checa y Grecia). Se paga precio completo y hay que pedir factura para poder solicitar el reembolso en Navarra. Hay que presentar la Tarjeta individual sanitaria del SNS-O y DNI o pasaporte. La tarjeta sanitaria europea no es válida para recoger medicación.
- Es aconsejable comprobar con anticipación las regulaciones y requisitos del país al que se va a viajar.
- En el caso de destinos no seguros desde el punto de vista de la salud, informarse previamente en el centro de vacunación internacional.
- Repelentes de mosquitos. Si se viaja a una zona de riesgo medio-alto de contraer enfermedades transmitidas por mosquitos, el DEET (ingrediente activo en repelentes) debe ser del 50%".

# KOLEKTIBOAK | COLECTIVOS



Atarrabiako San Andrés Jaiotzagileen Elkartea aurrerapausoak ematen ari da Atarrabiako eguberrien inguruko oroitzapena berreskuratu, gorde eta hedatzeko egitasmoan. Izan ere, berriki, Eguberrien gaineko argazkiak eta oroigarriak biltzeko ekimena jarri du abian. Horretarako, atal bat ireki du bere webean, Atarrabiako bizilagunek beren argazkiak, bideoak eta oroigarriak erraz igo ditzaten. Baina, inork beste lankidetza bideren bat nahi badu, idatz dezala WhatsAppez (644 27 11 91).
Elkarteak laguntza eskatu die bizilagunei argazki eta bideo familiarrak biltzeko, hots, etxeko jaiotzak; Jaiotzagileen Elkartearen jarduerak, erakusketak eta jaiotzak; eliza zaharreko jaiotzak eta eguberri jarduerak; lehenagoko eta egungo gabon ospakizunak; Errege Magoen kabalgatak; Olentzero; gabon kantak eta herri tradizioak; etxeko gabon bilerak eta ospakizunak; kale eta dendetako argiak eta apaingarriak...
Elkarteak, gainera, herritarrak animatu nahi ditu beren bizipen, oroitzapen eta pasadizoak elkarrizketa grabatuetan biltzera, dokumental batean sartzeko. Era berean, bidaltzen diren argazkiak eta oroitzapenak liburu batean bilduko dira.
San Andrés Jaiotzagileen Elkarteak aurrez eskertu nahi du Atarrabiako jendeak talde ekimen horri eskainiko dion lankidetza.

Asociación Belenistas San Andrés VILLAVA
Atarrabiako San Andres Jaiotzazaleen Elkartea

BELENISMO
PATRIMONIO CULTURAL INMATERIAL

## Gordetzen dituzu Eguberrietako argazkiak eta oroigarriak?

## ¿Guardas fotos y recuerdos de Navidad?

La Asociación de Belenistas San Andrés de Villava avanza en su proyecto de recuperación, conservación y difusión de la memoria navideña en la localidad. Recientemente ha puesto en marcha una iniciativa centrada en la recopilación de fotos y recuerdos de la Navidad, para lo que ha habilitado en su web un apartado en el que las y los vecinos de Villava pueden subir sus fotos, videos y recuerdos de las fiestas navideñas de una manera sencilla. También pueden ponerse en contacto por WhatsApp (**644 27 11 91**) para acordar otra fórmula de colaboración.
La asociación pide colaboración a los vecinos y vecinas para recopilar fotografías y videos familiares en torno a Belenes de domicilios particulares; de actividades, exposiciones y belenes de la Asociación de Belenistas; de belenes y actividades navideñas en la Antigua Iglesia; de celebraciones navideñas antiguas y actuales; de cabalgatas de Reyes Magos; de Olentzero; de villancicos y tradiciones populares; de reuniones y celebraciones familiares en Navidad; de la iluminación y decoración de calles y comercios; ...
Además, la asociación Belenistas San Andrés anima también a la ciudadanía de Villava a participar compartiendo vivencias, recuerdos y anécdotas en entrevistas grabadas que formarán parte de un futuro documental. También se publicará un libro con las fotografías y recuerdos compartidos.
La Asociación de Belenistas San Andrés agradece de antemano la colaboración de villaveses y villavesas en este proyecto colectivo.





## XXVI. pilota goxua txapelketa

## XXVI torneo de pelota goxua

Joan den maiatzaren 9n, bikotekako XXVI. pilota goxua txapelketaren azken partidak jokatu ziren, Atarrabia pilotalekuan, Etxe Beltza elkarteak antolaturik. 28 bikotek parte hartu zuten: 9k lehen mailan, eta 19k bigarrenean.
Lehen mailan, Okiñena-Irurita atera ziren garaile, herriko Vidán-Telletxea bikoteari 22 eta 15 irabaztearen ondorioz; partidu gogorra izan zen, benetan. Hirugarren posturako partiduan, Yaniz-Cordón 22 eta 14 nagusitu zitzaizkion Olaz–Mina bikoteari (azken hori Kañamaresen ordezkoa). Bigarren mailan, Anzizu–Dorai atera ziren txapeldun, Garde anaiei 18 eta 10 irabaziz.
Egun horretan, gainera, Etxe Beltzak bazkidearen eguna ospatu zuen, eta otamena prestatu zuten pilotalekura joandako guztientzat.
Hurrengo ediziorako, gauza berri bat eginen da partiduei bizitasun handiagoa emateko: airez egiten diren tantoei bi puntu emanen baitzaizkie, baten ordez.

El pasado 9 de mayo se disputaron en el Frontón Atarrabia las finales de la XXVI edición del Campeonato de Pelota goxua por parejas, organizado por la sociedad Etxe Beltza. Tomaron parte 28 parejas, 9 en primera categoría y 19 en segunda.
En primera, los vencedores fueron Okiñena-Irurita tras ganar 22-15 a los locales Vidán-Telletxea en un partido de enorme exigencia. En el partido por el tercer puesto, Yaniz-Cordón, ganaron 22-14 a Olaz–Mina (sustituto de Kañamares). En segunda categoría, el triunfo fue para la pareja Anzizu–Dorai, que se impusieron 18-10 a los hermanos Garde.
La jornada sirvió también para celebrar el día del socio de Etxe Beltza, que ofreció un aperitivo al público asistente.
Para la próxima edición, habrá una novedad para dinamizar los partidos: los tantos de aire computarán dos puntos en lugar de uno.

# Emakumezkoen Beti Onak: denboraldi bikaina kategoria guztietan

**Replasa Beti-Onak** taldeak berriz ere irabazi du Erreginaren Koparen azken fasea, 2025ean Granollersen Super Amara Bera Beraren aurkako final hura gogoan; talde gipuzkoarra txapelduna izan zen orduan, bai eta aurten ere, bere etxean. Atarrabiakoek final laurdenetako partidua galdu zuten Mecalia Atlético Guardésen aurka (23-27), hau da, donostiarren aurrean finala galdu zuen taldearen kontra (21-26).
Guerreras Iberdrola Ligako fase erregularrean, bestalde, Replasa Beti Onak seigarren gelditu zen. Guerreras Iberdrola Ligako final laurdenetako kanporaketako lehen norgehiagoka irabazi zuen Balonmano Málaga Costa del Solen aurka.



Dena den, Atarrabiako lehen partiduan lortutako bi golen errenta hura ez zen aski izan finalerdietara igarotzeko, bigarren partiduan 23 eta 20 galdu baitzuten.

Replasa Beti Onaken Europako ibilbidea Turkian bukatu zen urtarril akaberan, European Cup txapelketako final zortzigarrenetako bigarren partidua 32 eta 28 Bursaren aurka galtzearen ondorioz. Atarrabiako lehen partiduan ere turkiarrak nagusitu ziren, 24 eta 25.
Nolanahi ere, Replasa Beti Onaken denboraldia handia izan da, gora baitoa, ligako eta Europako talde onenengandik gero eta hurbilago.
Emakumezkoen **ohorezko zilarrezko mailan**, Beti Onakeko neskek bigarren egin zuten beren multzoan, liga erregularrean. Azken fasean, bi partidu galdu zituzten: Ucam BM Murciaren aurka (31-20) eta Healthy Poke BM Leganésen aurka (25-26). Irabazi, ordea, Handbol Ondaren kontrakoa (25-19).
**Jubenilek**, bestalde, laugarren tokia lortu zuten Espainiako Txapelketako Azken Fasean, maiatzaren 13tik 17ra Mislatan (Valentzia) jokatua, denboraldi ikusgarriaren ondotik. Izan ere, ligan Nafarroako txapeldunorde izateaz gain, lehen postua lortu zuten Atarrabian jokatutako sektore fasean.
**Kadeteak** Zaragozako Sektore Fasean aritu ziren, maiatzaren 21etik 24ra, beren ligan laugarren egin eta gero.

# Gran temporada del Beti-Onak femenino en todas sus categorías

**Replasa Beti-Onak** volvió a disputar la Fase Final de la Copa de la Reina con el recuerdo de la gran final disputada en 2025 en Granollers contra Super Amara Bera Bera, campeona entonces y también de la edición de este  año en su casa. Las de Villava perdieron su cruce de cuartos con Mecalia Atlético Guardés (23-27), equipo que acabarían perdiendo la final con las donostiarras (21-26).
En la fase regular de la Liga Guerreras Iberdrola Replasa Beti-Onak quedó en sexto lugar. Ganó el primer envite de la eliminatoria de cuartos de final de la Liga Guerreras Iberdrola ante Balonmano Málaga Costa del Sol, pero los dos goles de renta obtenidos en el partido de ida en Villava no fueron suficientes para acceder a semifinales tras perder en la vuelta 23-20.
La aventura europea del Replasa Beti-Onak acabó a finales de enero en Turquía, tras perder 32-28 con El Bursa en el partido de vuelta de octavos de final de la European Cup. Viajaron con un gol abajo tras perder en la ida en Villava 24-25.
En cualquier caso, gran temporada de Replasa Beti-Onak, que sigue creciendo y acercándose a los equipos punteros de la liga y del entorno europeo.
En **división de honor plata** femenina, las chicas del Beti ocuparon la segunda plaza de su grupo en la liga regular. En la fase final perdieron dos de sus enfrentamientos: contra Ucam BM Murcia (31-20) y contra Healthy Poke BM Leganés (25-26) y ganaron a Handbol Onda (25-19).
Las **juveniles**, por su parte, lograron la cuarta plaza en la Fase Final del Campeonato de España disputado en Mislata (Valencia) entre el 13 y el 17 de mayo tras una temporada espectacular. Fueron subcampeonas navarras en su liga y alcanzaron el primer puesto en la fase sector disputada en Villava.
Las **cadetes** jugaron la Fase Sector en Zaragoza celebrada del 21 al 24 de mayo tras quedar cuartas en su liga.

# Kultur Etxeko poesia taldea

# Grupo de poesía de la Casa de Cultura



JOSÉ LEANDRO GEA

¿Dónde estás?

ME ASOMO a mi ventana
pero no te siento.
Abro la puerta de mi casa
pero tú no quieres entrar.
Salgo a buscarte a la calle
pero no te encuentro.
Cansado sin respuesta,
te espero bajo la sombra
pero tú no apareces.
Los días se alargan
sin tregua ni respiro,
y las noches no encuentran
el consuelo de los sueños.
Cierzo, cierzo...,
¿dónde estás?
Despierta de tu aletargo
y mándame un mensaje
de aire fresco.
Que tu ausencia
me está matando
y yo no puedo vivir sin ti.

## Abian da txirrindularitza denboraldia

CLUB CICLISTA VILLAVES

Joan den maiatzean, txirrindularitza probak hasi ziren, Nafarroako Kirol Jokoen barnean. Hilero eginen dira, denboraldia irailean bukatu arte. Proba guztietako egutegia eta sailkapena hementxe topatuko dituzu: **www.fnciclismo.es**

## Comienza temporada de ciclismo

El pasado mes de mayo comenzaron las carreras de los Juegos Deportivos de Navarra de ciclismo, que se irán celebrando estos meses hasta su finalización en septiembre. Puedes seguir el calendario y la clasificación de cada carrera en **www.fnciclismo.es**

# AGENDA
UDALDIA ATARRABIAN

## EKAINA

**13 ETA 14 LARUNBATA eta IGANDEA**
- Antzerki musikala
  "Charlie y la fábrica de chocolate" ANTEM
  19:30 / Antzokia / 12 €

**19 OSTIRALA**
- Antzerki musikala. ANTEM
  "La venganza de Don Mendo"
  19:30 / Antzokia / 10 €

**20 LARUNBATA**
- Antzerki musikala. ANTEM
  "Ricardo III"
  19:30 / Antzokia / 10 €

**21 IGANDEA**
- Antzerki musikala. . ANTEM
  "Hola y bienvenidos"
  17:00 y 19:30 / Antzokia / 8,50 €

**26 OSTIRALA**
- Antzerkia euskaraz
  "Rip, azken musikala"
  Demode produkzioak
  20:00 / Antzokia / 15 €

**27 LARUNBATA**
- Igerilekuen Jaia
  Ping-pong torneoak, mus txapelketa, puzgarriak, kontzertua eta aunitzez ere gehiago

## UZTAILA

**25 LARUNBATA**
- Indurain txirrindularitza proba
  Info+: www.laindurain.com

## ABUZTUA

**10 IGANDEA**
- Zinema plazan "Tornados"
  22:00 / Bakearen parkea

**17 IGANDEA**
- Zinema plazan "Padre no hay más que uno 4"
  22:00 / Bakearen plaza

**19 ASTEARTEA**
- Umore-zirkua-magia. Familiarra
  "A su servicio" Tiritirantes
  20:00 / Udaletxe plaza

**22 OSTIRALA**
- Kontzertua: Mariachi Imperial. Guanajuato (México) 20:00 / Udaletxe plaza

**24 IGANDEA**
- Zinema plazan "El 47" 22:00 / Bakearen parkea

**26 ASTEARTEA**
- Antzerkia-zirkua euskaraz. Familiarra "Marietak Zirkus" Zirika Zirkus 20:00 / Udaletxe plaza

**28 OSTEGUNA**
- Kale ikuskizun handia
  "Artilusio" Markeliñe
  20:30 / Udaletxe plaza

**29 OSTIRALA**
- Kontzertua Epsilon 20:00 / Udaletxe plaza

**31 IGANDEA**
- Zinema plazan euskaraz
  "Irati" 22:00 / Bakearen parkea



## 2026KO JAI KARTEL LEHIAKETA

**Epea eta aurkezpen lekua:** Uztailaren 27tik abuztuaren 14ra, 10:00etatik 14:00etara, Kultur Etxean (karrika Nagusia 38)

- **Helduak**
  Teknika: librea. Lan jatorrizkoa eta argitaragabea. Kartelaren formatua: 50 cm zabal x 70 cm garai. Saria: 900 €
- **Haurrak**
  Teknika eta materialak: librea
  Kartel formatua: 50 x 65 cm-ko kartulina estandarra. Saria: 150 €

**Bases: www.villava.es**

## ATARRABIAKO EGUNA

**ABUZTUAK 25 eta 27 eta IRAILAK 1 eta 3**

BASERRITAR JANTZIAK ETA OSAGARRIAK JOSTEKO TAILERRA
**Non:** Lapiko (k. Nagusia, 53, behea)
**Ordutegia:** 17:30 - 19:30

**ABUZTUAREN 31tik IRAILAREN 4ra**

JANTZI ERAKUSKETA
**Non:** Lapiko (k. Nagusia, 53, behea)

**IRAILAK 4, OSTIRALA**

**Udaletxe plazan**

**17:30:** haur txokolate-jana / irabiakiak (eguraldiaren arabera), IDOSKIAk antolatua

**18:00**: haur jolasen tailerra, KARRIKALUZEk antolatua

**Herriko karriketan barna**

**19:00:** bertso-triki poteoa elkartez elkarte. Xabat Ilarregi Marzol eta Maddi Ane Txoperena Iribarren, kantari. Ibilbidea: Txirimiri eta Union Villavesa, Azkena, Etxebeltza, Bolon, Gaizpegi eta Eragibela, Udaletxe plazan bukatzeko

**IRAILAK 5, LARUNBATA**

**Herriko karriketan barna**

**10:00:** Dianak, Kultur Etxetik: Kilikiek Konpartsa, Gaiteroak, Erraldoien Konpartsa eta Aburrecalles Txaranga. Kalejira, Foruen plazatik, Atarrabiako Txistulariek eta Idoskia eta Paz de Ziganda dantza taldeek girotutik

**10:30:** Joaldunak, Atargiko pilotalekutik. Trikia eta Panderoa, Ribed parketik, eta Nafarroako Albokari Taldea, Etxebeltzatik.

**11:30:** Kalejira, kultur elkarte guztiek parte harturik (Antso VI.a plazatik)

**Antso VI.a plaza**

**10:30** Hamarretakoa, Gure Txolarte elkarteak eskainia, eta dantzak, Idoskia eta Paz de Zigandaren eskutik

**Udaletxe plaza**

**11:00:** Artisautza Azoka

**11,30:** Jaialdi akordeoiak

**12:00:** Kalejiraren etorrera, eta Erraldoien, Gaiteroen eta Idoskia eta Paz de Ziganda dantza taldeen emanaldia

**13:00:** Herri Kirolak

**Antso VI.a plaza**

**14:30** Bazkaria. Menua: helduak, 30 €; haurrak, 10 € / txartela, 2 €, tokia erreserbatzeko, nork bere janaria ekarriz gero (ogia banatuko da).

**17:00:** Bingoa eta bazkalondoko giroa

**19:00:** Dantzaldia Antso VI.a plazan IRATZAR orkestrarekin

**IRAILAK 6, IGANDEA**

**Udaletxe plazan**

**10:00** Atarrabiako eskupilota txapelketa

**11:30-14:00:** Puzgarriak eta jolasak

**12:00:** Omenaldia ikurrinari, Mikelatsen emanaldia eta herri dantzak

**13:00:** Txistor jatea. Antolatzaileak: Azkena eta Txirimiri

**Antso VI.a plazan**

**19:00:** Atarrabia Abesbatza

**19:30:** San Andrés abesbatza.

**20:00:** Kantu Salda Abesbatza




# LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK | NOVEDADES BIBLIOTECA

### HELDUAK / ADULTOS

- RESANO, Helena. **Las rutas del silencio.** Barcelona: Espasa, 2026.442 p.
- URRETABIZKAIA, Arantxa. **3 Mariak**. Donostia: Erein, 2025. 190 p.
- MARÍN, Aitor. **Será por dinero.** Madrid: Siruela, 2026. 261 p.

### HAURRAK-GAZTEAK / INFANTIL-JUVENIL

- CASTRO, Beatriz **El muro. Los guardianes del bosque.** Barcelona: Astronave, 2025. 58 p.
- RUESCAS, Javier. **Maindi maitagarri.** Amorebieta-Etxano: Ibaizabal. 2026. 107 p.
- ROBERTS, Steve. **Los misterios de Villamaraña.** Zaragoza: Edelvives, 2026. 123 p.

# AGENDA

**VERANO EN VILLAVA**

## JUNIO

**13 y 14 SÁBADO y DOMINGO**
- Teatro musical "Charlie y la fábrica de chocolate" ANTEM 19:30 / Teatro / 12 €

**19 VIERNES**
- Teatro Musical. ANTEM "La venganza de Don Mendo" 19:30 / Teatro / 10 €

**20 SÁBADO**
- Teatro Musical. ANTEM "Ricardo III" 19:30 / Teatro / 10 €

**21 DOMINGO**
- Teatro Musical. ANTEM "Hola y bienvenidos" 17:00 y 19:30 / Teatro / 8,50 €

**26 VIERNES**
- Teatro en euskera "Rip, azken musikala" Demode produkzioak 20:00 / Teatro / 15 €

**27 SÁBADO**
- Fiesta de la piscina torneos de ping-pong, campeonato de mus, hinchables, concierto y mucho más

## JULIO

**25 SÁBADO**
- La Indurain, carrera ciclista Más info: www.laindurain.com

## AGOSTO

**10 DOMINGO**
- Cine al aire libre "Tornados" 22:00 / parque de la Paz

**17 DOMINGO**
- Cine al aire libre "Padre no hay más que uno 4" 22:00 / parque de la Paz

**19 MARTES**
- Humor-circo magia. Familiar "A su servicio" Tiritirantes 20:00 / plaza Consistorial

**22 VIERNES**
- Concierto Mariachi Imperial de Guanajuato (México) 20:00 / plaza Consistorial

**24 DOMINGO**
- Cine al aire libre "El 47" 22:00 / parque de la Paz

**26 MARTES**
- Teatro circo en euskera. Familiar "Marietak Zirkus" Zirika Zirkus 20:00 /plaza Consistorial

**28 JUEVES**
- Gran espectáculo de calle "Artilusio" Markeliñe 20:30 / plaza Consistorial

**29 VIERNES**
- Concierto Epsilon 20:00 / plaza Consistorial

**31 DOMINGO**
- Cine al aire libre en euskera "Irati" 22:00 / parque de la Paz



## CONCURSO CARTEL DE FIESTAS 2026

**Plazo y lugar de entrega:** del 27 de julio al 14 de agosto, de 10:00 a 14:00, en la Casa de Cultura (calle Mayor 38)

- Personas Adultas
  Técnica: libre. Obra original e inédita. Formato del cartel: 50 x 70 cm. Premio: 900 €
- Infantil
  Técnica y materiales: libre. Formato del cartel: cartulina estándar de 50 x 65 cm. Premio: 150 €

**Bases: www.villava.es**

## ATARRABIAKO EGUNA

**25 y 27 DE AGOSTO y 1 y 3 DE SEPTIEMBRE**

**TALLER DE COSTURA DE TRAJES Y COMPLEMENTOS DE BASERRITARRA**
**Lugar:** Lapiko (c. Mayor, 53, bajo)
**Horario:** 17:30 - 19:30

**DEL 31 DE AGOSTO AL 4 DE SEPTIEMBRE**

**EXPOSICIÓN DE TRAJES**
**Lugar:** Lapiko (c. Mayor, 53, bajo)

**4 DE SEPTIEMBRE, VIERNES**

**En la plaza del Ayuntamiento**

**17:30:** chocolatada infantil / batidos (según el tiempo) organizada por IDOSKIA
**18:00:** taller de juegos infantiles organizado por KARRIKALUZE

**Por las calles del pueblo**

**19:00:** bertso-triki poteo entre sociedades con Xabat Ilarregi Marzol y Maddi Ane Txoperena Iribarren. Recorrido: Txirimiri y Union Villavesa, Azkena, Etxebeltza, Bolon, Gaizpegi y Eragibela y finalización en la Plaza del Ayuntamiento

**5 DE SEPTIEMBRE, SÁBADO**

**Por las calles del pueblo**

**10:00** Dianas desde la casa de cultura con Comparsa de Kilikis, Gaiteros, Comparsa de Gigantes y Charanga Aburrecalles. Kalejira desde la plaza de los Fueros con Atarrabiako Txistulariak y los grupos de danzas, Idoskia y Paz de Ziganda.

**10:30** Zanpanzar desde el frontón de Atargi. Triki eta Pandero desde el parque Ribed y Nafarroako Albokari Taldea desde Etxebeltza

**11:30** Kalejira con todas las sociedades culturales (desde la plaza Sancho VI)

**Plaza Sancho VI**

**10:30** Almuerzo ofrecido por la sociedad Gure Txolarte y danzas con Idoskia y Paz de Ziganda

**Plaza del Ayuntamiento**

**11:00:** Feria de Artesanía

**11,30:** Acordeones Jaialdi.

**12:00:** Llegada de la Kalejira y actuación de los Gigantes, Gaiteros y grupos de danzas Idoskia y Paz de Ziganda

**13:00:** Deporte Rural

**Plaza Santxo VI**

**14:30** Comida. Menú adulto 30 €, infantil 10 € / ticket 2 € por reserva de sitio para comida autoges- tionada (se dará pan)

**17:00:** Bingo y sobremesa

**19:00:** Bailables en la plaza Sancho VI con la orquesta IRATZAR

**6 DE SEPTIEMBRE, DOMINGO**

**En la Plaza Consistorial**

**10:00** Campeonato de pelota mano de Atarrabia

**11:30-14:00** Hinchables y juegos

**12:00:** Homenaje a la Ikurriña, actuación de Mikelats y bailes populares

**13:00:** Txistorrada. Organizan Azkena y Txirimiri

**En la plaza Sancho VI**

**19:00:** coral Atarrabia Abesbatza

**19:30:** coral San Andrés.

**20:00:** Kantu Salda Abesbatza

Solidus
Tecnología e innovación

CUIDAMOS TU SONRISA

CDV

CLÍNICA DENTAL

VILLAVA



CDV CLÍNICA DENTAL VILLAVA 25 AÑOS CONTIGO

- Todas las soluciones para tu salud bucodental en Villava.
- Pídenos tu plan de tratamiento personalizado y pregunta por nuestras fórmulas de financiación.
- Somos expertos en: implantología, periodoncia, ortodoncia, diseño de sonrisa y odontopediatría (atención PADI).
- Tecnología de vanguardia y escáner 3D.

C/ Ezkaba 4, bajo 31610, VILLAVA - T. 948 13 06 05

WWW.CLINICADENTALVILLAVA.COM

CPS 1511C/4-19 NA